



Bidasoako Filme Laburren Lehiaketa 04

Laura Bellosoren «Azken ipuina» filmeak irabazi du Bidasoako Filme Laburren Zinemaldiko Urrezko Iratzea. Berako Kultur Etxean eman ziren sariak irailaren 22an.



Gure igerilariak bikain aritu dira 06

Baztan, Bidasoa eta Leitzaldeko igeriketa selekzioak brontzezko domina eskuratu du Nafarroako Kirol Jokoetan. Bakarka, hameka domina etxeratu zituzten.

03 Txapeldun handienaren agurra



MUEBLES A METS

Sarrera BERATik da

Alkaiagako industrialdean

Sastrin karrika, 3.2 - 3.4

31789 LESAKA


Tfnoa. 948 630 537

Fax. 948 631 443




Larunbat arratsaldetan irekia

4.000 m²ko erakusketa mobleak ikusteko
Sukaldeak • Egongelak • Logelak • Bainugelak



*Sekulako
aukera
sofa-ohatze,
silo, eta
sofatan*





JOSU SANTESTEBAN / NABARRA

Julian Retegik hainbat ordu sartu ditu gimnasioan. Prestakuntzari dagokionez bide berria ireki die gaurko pilotariei.

HOGETA BI TXAPEL OFIZIAL JANTZI DITU JULIAN RETEGIK

Pilota profesionala utzi du XX. mendeko txapeldunik handienak

Irailaren 20an jokatu zuen Logroñoko Adarraga pilota plazan azken partidua profesioaletan Julian Retegi «Retegi II» pilotari oratsundarrak. Abel Barrioia leitzarra lagun zuela, 18-22 gaildu zuen Aimar Olaizola goizuetarra eta Armendarizen kontra. Baina emaitza zen gutxienezkoa. Errioxako partida horrekin adio erran zitzaion XX. mendeko pilotaririk handienari, kirol honek eman duen izarririk diztiratsuenari.

Aitor AROTZENA

Retegi II pilotarendako zer izan den ikusteko, profesioaletan egin dituen 27 urtetan buru gainean jantzi dituen txapel ofizialen kopurua zenbatzea aski da. 22 txapel ditu, erdiak lehen mailako eskuz banakakoan lortutakoak (Azkaratek eta bere osaba Juan Ignaciok sei dituzte, Belokik lau); bortz eskuz binaka (Antton Maiz aranztarraren marka berdindu zuen 1997an) eta lau lau terdian (azkena 1997an, Titin III. ari, gazteenek ere gogoratuko duten final zoragarrian). Bigarren mailako buruz burukoa ere irabazi zuen 1975ean, debutatu eta urtebetera. 1980an hasi eta 1993a bitartean, buruz buruko txapelketaren final guzietan izan zen. Denen artean 1984ko finala gogoratzen du bereziki Julian Retegik, Galarza III. ari

22-21 irabazi ziona: «urte osoan jokatu gabe egon nintzen, otsailean oraindik ez nintzen prestatzen hasi, atxikia kendu berria zuten eta hirugarren tanturako eskua xehatua nuen. Baina orduan, nere harrotasuna eta buru-estimua atera nituen. Argi nuen Galerzak ez zidala partidua irabaziko, bertan hil behar banuen ere». Dena den, gozotik ez ezik gazitik ere eman dio pilotok: hiruna operazio izan ditu belaun bakoitzean eta tarteka finalen bat ere galdu du. Halere, momenturik txarrenak azken urteak direla uste du: «Egia da belaunetik sei aldiz operatu nautela, baina 27 urtetan hori ez da sobera, eta gainera, errekuaratzeko modukoak ziren lesio guztiak. Besoak lan gehiago eman dizkit azken aldian. Momenturik txarrena despedidaren ordua izan

dela iruditzen zait, azken urteak. 1997an binaka eta lau terdian irabazi nuenetik honara bidea ez da batera xamurra izan».

AIZKORA UTZI ETA PILOTA HARTU

Gaztetan, inork guttik pentsatzen ahal zuen Eratsungo Martineako mutil kozkor hura pilotari profesionala izan zitekeenik. Bederatzi seme-alaben artean laugarrena da, eta lehendabiziko mutikoa. Ikasle txarra izan zen eta 14 urtetarako harrobian hasi zen lanean aitarekin urtebetez, gero Leitzako Papeleran aritu zen urte terdiz eta handik Alpeetara jo zuen, basoan lan egitera. Partidu batzuk jokatuak zituen afizionatuetan, baina ez zirudien hortik bizia aterako zuenik. Eguberriak Eratsunen pasatzeko intentzioz itzuli zen Julian eta orduan, bere osaba Juan Ignaciok eta Martin Ezkurak –beti botillero izan duena– pilotan proba egiteko eskatu zioten. Juliani deus erran gabe Nafarroako gazte mailako txapelketan izena eman zuten. Martirikorenarekin bikote eginez txapelketan gelditu zen. Profesionaletara salto egiteko aukera aztertu zuen eta Javier Elizalde «Garbitoki» doneztebarrarekin prestatzen hasi zen.

Profesionalerako debuta 1974ko uztailaren 11n egin zuen Zarauzko Zinema pilotalekuan. Hurrengo urtean bigarren mailako buruz buruko txapelketan suertatu zen, Garcia Arifloren kontra. 1978an osabaren kontra jokatu zuen Empresas Unidasek antolatutako txapelketan. 22 eta 1 irabazi zion buruz buruko sei txapelen jabe zen Retegi I.ari. Osaba-loben arteko erreiboa alegatua zen.

1979an aritu zen estreineko aldiz lehen mailako eskuz banakako txapelketan. 16-22 galdu zuen Bengoetxearen kontra. Hurrengo urtean bortz



JULIO SANFESTERAN / NAARRA

«Gustokoa dudan ofizioan pixkanaka zahartzen jakin izan dut».

tantutan utzi zuen Bengoetxea bera eta lehendabiziko finalean Antton Maiz arantzarra menderatu zuen. Hor hasi zen Retegi II.aren nagusitasuna.

«LAN EGITEA ALFERRIK DA, BEREZKOA EZ BADUZU»

Hogeita zazpi urte egin ditu Julian Re-

tegi pilotari profesionalen, beti ere onenen artean. Hor irauteko sekretua berezkoa izatea dela uste du eratsundarrak. «Berezkoa izan behar duzu pilotan punta-puntan aritzeko. Batek nahi duen lan guziaz eginda ere, naturak ezaugarri batzuk eman behar dizkizu, bestela alferrik zabilza.



Antton MAIZ Arantzako pilotari ohia

“Mano-mano aritzeko pilotari konpletoa izan da Julian, onena dudarik gabe”

Lehendabiziko txapela zure kontra irabazi zuen Retegi II. Gogoratzen duzu final hura?

Aspaldiko kontua da hori, 1980an izan zen eta bien tzako lehen finala zen. Hasieratik aitzinetik paratu zen. 21-5 irabazten ari zen eta 14ra hurbildu nintzen, baina hor akautu zen partida. Nik baino gehiago jokatzeko

eta atxikiarekin min handia egiten zuen gainera.

Binaka ere aritu zara berekin. Nolako laguna zen?

Ongi ginenean guttitan suertatu gara elkarrekin, enpresa ezberdinetan ginelako. Azken aldian bai, ordu-rako biak modaz pasatu xamarrak ginen, baina halere nahiko lan ematen genion edozeineri.

Julian izan da historiako pilotaririk onena?

Beti izan da pilotari handi bat, binaka onenetakoa izan da eta bakarka dudarik gabe bera izan da onena. Ezagutu dudan pilotaririk konpletoena izan da, bi esku onak, ezkerreko fenomeno, frontoian aisa ibiltzen zena... Bere markak hobetzea hagitiz zaila izanen da.

ESKUALDEKO PILOTARI GAZTEEN ETORKIZUNARI BEGIRA

Omenaldi gisara jokatu dituen azken partida gehienetan Abel Barriola izan du gibelean lagun Retegi. Julianek berak eskatuta, Mikel Gofi eta Aimar Olaizolaren kontra aritu da azken norgehiagoketan. Bai leitzarrak, bai oronoztarrak, baita goizuetarrak ere, Retegi II beraien idoloa izan dela onartu dute. Nolabait erreleboa eman nahi izan die eratsundarrak azken partidak beraiekin jokatuz. «Etilo edo jokatze modu bera duten bi pilotari ez dira izaten –dio Julianek– baina Aimar Olaizolak nola jokatzen duen asko gustatzen zait. Kantxan egiten duen guzia zentzu handiz egiten du, nahiz eta bere adinarengatik, erabat egin gabe egon oraindik. Ez nuen Aimarren kontra jokatu gabe gelditu nahi». Eratsundik mugitu gabe, berekin konparatu duten Josu Baleztena etorkizun handiko pilotaria dela uste du Retegi IIk: «Baleztenak gaia badu, Niri ere asko gustatzen zitzaidan Alano III. arekin konparatzen niri-



Julian Retegi eta Patxi Eugi Donezteben, 1991eko Ezkurra Memorialaren sari banaketan. Txapeldun gazte txoak ezagutzen dituzue? Bai horixe! Mikel Gofi oronoztarra eta Mikel Atxa almandoztarra.

dutenean, nahiz eta inoiz ez nuen jokatzen ikusi».

Hauen gibeletik ere heldu dira pilotariak gure inguruan. Oinatz Bengoetxea Leitzako gaztea Julianen

ondoan zegoen Adarragako aldagelan, eratsundarrak takoak jartzen zituen bitartean, begiak zabal-zabal eginda. Julen, 16 urteko semea ere Oberenare-

kin ari da pilotan. «Poliki ari da, baina gostako zaio afitaren markak berdintzea» dio irriz Julianek.

Baztan eta Malerrekako pilotari gazte txoak biltzen dituen Txaruta taldeak Nafarroako eta Euskal Herriko Herriarte txapelketak irabazi ditu azken bi urteetan, lana ongi egiten ari denaren seinale. Etorkizuneko norbaitek bere markak gaintzen ahal dituela uste du: «bere fakultadeak aprobetxatzen dakien 22 urteko pilotari bat agertzen denean, eta hori ailegatu da, posible da nere historia hobetzea: buruz-burukoan zailagoa izanen da, baina lau terdian eta binaka posible da».

Julian Retegi behin baino gehiagotan adierazi du hamabi urte bitarteko pilotari titulu berak dakiena erakusten gustora arituko litzatekeela, postura okerrak zuzenduz eta ahalik eta esilorik onena har dezaten. «Gustatuko litzaidake, baina oraindik ez dut pentsatu etorkizunean zer egin behar dudana».

Nik, zorionez, bi gauzak izan ditut: ezaugarri jakin batzuk eta, lan handia eginez, kantxa gainean erakusteko aukera. Jendeak uste du izugarri zaindu naizela, baina hori ez da horrela. Horrela egin izan banu, 30 urtetarako pilotaz nazkatua egonen nintzen. Gustokoa dudun ofizioan pikanaka zahartzen jakin izan dut». Abikia kendu, pilotak bizitu edo publizitatea eta telebistak sartu badira ere, tarte horretan ez du aldaketa handirik somatu pilotan: «Pilota, frontisa, ezker pareta eta errebotea, hori ez da aldatzen. Inguru gehiago aldatu da, baina gehienetan onerako».

AGURRAREN ORDUA

Lehendik ere adio errateko asmotan ibilia da Retegi II. 1987ko eskuz banakako finala jokatu aitzin, pilotan urte pare bat gelditzen zitzaizkiola adierazi zion Argia astekariari. 1997an, binaka eta lau terdian irabazi ondotik lesionatu zenean ere pilota uzteko tentazioa izan zuen, baina kantxa gainean utzi nahi izan du.

Ordua ailegatu denean, ordea, penaz utzi du: «Belaunengatik eta, batez ere, eskuin besoarengatik ez biltz 60 urteak arte arituko nintzen».

Hegoaldeko lau herrialdeetako frontoi banan eta Logroñoko Adarragan jokatu agurtu da. Retegi ez da omenaldien zale eta horregatik berak eskaini nahi izan die omenaldia pilotazaleei. «Merezi zuten. Nik zale asko izan ditut, baina baita kontrarioak ere, eta polita da denak elkarrekin frontoian ikustea». Hemen-dik aitzinera, erakustaldiren batean ere jokatzeo intentzioa erakutsi du. Iparraldean adiorik erran ez duenez, «partidaren bat jokatzea gustatuko litzaidake, Seaska elkarteari laguntzeko, adibidez».

Txapel eta sari aunitz eman dizkio pilotak, baita ospe handia ere. Baina Julianek berak ere gauza ugari eman dizkio pilotari: «Pilota eta biok bakean gaude» dio Eratsungo maisuak. Berak kontrako uste badu ere, pilotazaleen gogoan gelditu da betirako Julian Retegi, Retegi II.

TXAPELDUN BATEN DATUAK



Julian RETEGI
BARBERIA
RETEGI II

Jaiotze data:
Eratsun 1954/X/10
Debuta:
Zarautz
1974/VIII/11

- 2. mailako eskuz banakako txapeldun (1975)
- 1. mailako eskuz banakako txapeldun 11 aldiz (1980, 81, 82, 83, 84, 85, 86, 87, 88, 90, 93) eta azpitxapeldun 3 aldiz (1989, 91, 92).
- 1. mailako binakako Espainiako txapeldun 5 aldiz (1987, 89, 90, 95, 97) eta azpitxapeldun 2 aldiz (1988, 94).
- Euskadiko txapeldun binaka (1997)
- Lau terdiko txapeldun 4 aldiz (1989, 90, 91 eta 97) eta azpitxapeldun behin.

Lege Gordailua: NA-1324/85
Franko Bundua: 34/79
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com/ttppi-ttapa
ttppi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttppi-ttapa fundazioa. **Pre-
sidentea:** Pello Apeztegia. **Kudea-
tzalea:** Joxemmanuel Irigoien. **Zuzen-
daria:** Aitor Arotzena. **Publizitate:**
Kulturari, S.L. **Administrazioa:** Amaia
Goia. **Erredakzioa:** Aitor Arotzena,
Rakel Goñi. **Berriemakal:** Joseba
Aziproz, Esteban Arotzena, Juana Mari
Salzar, Kontzi Kläber, Peio Zestau,
Iban Ikasi, Patxi Iriarte, Jaione O-
txandorena, Alba Fernandez, Franck
Dolosoar, Margari Etxenke, Koro Iru-
zoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari
Etxeberri, Frederick Bernuet, Nerea
Aitzuri, Oskar Txoperena, Joseba Ota-
garai, Nerea Mixelorena, Aitor Aro-
tzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.
Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Eus-
kal Herriko Kontsumitzaileen Antola-
keta...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde La-
guntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta,
Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta
Sarako udalak, Zugarramurdioko Ake-
lame elkarteak, Bortzirieta Euskara
Mankomunitatea, Maierrekako Zer-
bitzu Mankomunitatea, Zugarra-
murdioko Akelame Elkarteak...

Harpidetza tariak:

Hego Euskal Herria	2.400 Pta.
Ipar Euskal Herria	180 Libera
Europa	4.600 Pta.
Amerika	16.500 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jasotzen du

GAURKOTASUNEN GAIA

Retegi II.aren agurra



Inaxio ERRANDONEA Aikalagako pilotaria

**Lehenengo pilotarekin hautsi du Retegiren belaunaldiak,
prestakuntza fisikoan bidea ireki zigun gaur egungo pilotariak**

Ni estelarrak jokatzen hasi nintzenerako Julian figura handi bat zen, mito bat bihurtzen hasia zen, ilusio izugarria egiten zuen berekin jokatzea, ordurako txapel pila bat zituen. Gero, elkarrekin hiru txapel lortu genituen eta horregatik oroitzapen hagitz ona dut. Maila handiko txapelduna izan da. Banaka gehiago destakatu du eta berak ere onartu du gehiago gustatzen zaiola. Berak mano-mano-rako prestatzen zuen urte osoa eta izugarritzko kalitatea zuen. Lau terdian ere azkeneko txapela 42 urterekin irabazi du. Historiako pilotaririk onena izan den edo ez? Hori erantzutea zaila da. Auniztan, lehenengo zaharrek erraten dute ez dakit nor izan zela hagitz ona. Konparazioak egitea zaila da. Azken boladan Retegi onena izan dela uste dut, tituluak zerbaitegatik lortzen dira. Retegiren belaunaldia izan da lehenengo pilotarekin hautsi duen belaunaldia, prestakuntzan eta bidea ireki zigun gaur egungo pilotariak. Orduan, zaila da Atanorekin konparatzea. Pentsatzen dut Atanok mendian barna pasio batzuk egiten zituela, baina ez zela aunitz gehiago prestatuko. Kalidade handiko pilotaria omen zen, baina Retegi urte aunitz prestatu da eta oraindik 47 urterekin nola dagoen ikusi egin behar da. Lesioengatik puskatu egin delakoz, bertzenaz, nerbioa eta hagitz ongi mantendu duela uste dut. Azken urteetan batez ere binaka jautsi da, nahiz eta azkeneko bi partidutan maila polita erakutsi. Eta ez dut konprenitzen zergatik, banaka aritzea hagitzez zailagoa baita. Joan den urtean lau terdiko finalean sartzeko puntuan izan zen. Bere markak haustea zaila da, ez bakarrik gisako pilotaririk ateratzea zaila delakoz. Gaur egun txapelketak bertze modu batera antolatzen dira eta txapeldunak final laurdenetan hasi behar du eta errexa da partidu batean huts egitea, egun txar batengatik. Bera aunitz finalean sartzan zen zuzenean, beretzat aproposa zen, dena ematen zuen eta eskuak batera kastigatu gabe lortzen zuen. Beraz, zaila da bere markak haustea. Baina ikusmina sortzen duen pilotaria badugu hemen bertan, Mikel Goñi. Hasi berria da, baina orain arte bezala segitzen badu bere mailara ailegatzen ahal da. Baina hori hemendik hamar bat urtera erran beharko da.



Juanjo ATXA Txarrita pilota elkarteak arduraduna

**Egiazko profesional bat bezala bizitu da, behar den bezala,
baina gaur egungo gazteek juerga egitea gehiago gustatzen zale**

Julian Retegi maisua izan da pilotaren munduan, denek erraten duten bezala eta arrazoi guziriarekin. Zaila da historiako pilotaririk onena izan den edo ez erratea, hori nik ez dut nik erraten ahal, baina bai gure garaian ezagutu dugun onena izan dela, hori dudarik gabe. Aitzinetik izan direnak ez ditugu ezagutu, lehenago ere pilotari aski onak bazirela erraten dute, baina ez dut uste Julianek izan duen prestakuntza izanen zutenik. Etorkizunera begira ere ez da errexa izanen horrelako pilotaririk izatea, horrelako bat arras noizbehinka sortzen baita. Orain horrelako bat ateratzea arras zaila da, gerta daiteke, baina ez da errex izanen. Gaur egun ere badira pilotari gazte batzuk, arras politak heldu direnak, baina badakizu, arrazoi batengatik edo bertzearengatik makurtu egiten dira. Hori denborak erranen du eta bakoitza bere lekuan utziko du. Julianek izugarritzko prestakuntza egin du eta bizitu da behar den bezala, egiazko profesional bat bezala, bere profesionaltasuna erakutsi du behin eta berriz. Gaur egungo gazteek badirudi juerga egitea gehiago gustatzen zaiela guri baino eta hor izaten ahal da bi belaunaldien arteko alderik handiena. Nahiz eta pilotan aritzeko ezaugarri eta baliabide hobeak izan, errexago uzten dute. Eskolan ditugun pilotari gaztetxoek, dena den, ez dute Retegi eredu bezala ikusi. Akaso azken lau urteotan ez du aunitz jokatu eta, badakizu, telebistan agertzen ez bazara, zaila da gaztetxoek idoloztat hartzea. Batzuentzako, aditu dutenarengatik edo zaharxeagoak direlako, Retegi izanen da idoloa, baina bertze batzuentzat Titin, Goñi, edo bertze norbaitek... ez dut uste Julian erreferentziatzat dutenik. Retegi XX. mendeko azken bi hamarkadetakoko erreferentzia izan da pilotan. Dena den, nire iritziz, pilota lehenxeago utzi behar zuen, 1997an Titineri 22 eta 21 irabazi zionean lau terdiko txapelketa, orduan zen egokiena uzteko. Gainera, eskuz binakakoa ere irabazia zuen Lasarekin eta hori izugarria da: 42 urterekin eta bi txapel jantzita uztea pilota. Baina, noski, omenaldiak nahi izanen zituen eta kantxan agurtu ditu pilotazaleak. Hori ere errespetagarria da.

• IRAKURLEAK MINTZO •

Zergatik dugun bihotzean egarria

Euskal Herrian berrogei urteko ekaitza atertu eta gero gure errekek eta iturriak garbitzen, argitzen eta frexkatzen ari zirela zirudien. Halaber euren lekuetatik lasai zihoztela Kantaurriko itsas zabalera, bertan, elkartuta, mugarik gabeko putzu handi paketsu zoragarri bat egiteko. Baina...

1978. urtean zeru urdina ikusi izan bagenuen ere, «aro» oker berri bat hastera zihozala konturatu ginen eta tamalez haren ondorioak gogorrak, saminak eta tristeak izan dira. Ilibeltzaren 27an, Euskal Herriko gartzeletan zeuden 97 preso «Soriako» gartzelara eraman zituzten. Garai haietan Madrilén zegoen Gobernuak eta bere politika onartu zuten haiek giza eskubideak urratu zituzten, eta hartu zuten bide okerra zuzentzeko oraindik ez dute deus egin.

Giza eskubideak urra-

zteak eta ez konpontzeak ondorio haiek ekarri ditu:

- Bizitzeko eskubidea zuten pertsona anitz hil da daudela.

- Euskal Herriko gartzeletan egoteko eskubidea duten preso guztiak Espainiako gartzel guztietan sakabanatuta daude.

- Presoak, nahiz eta elkarrekin egoteko eskubidea duten, gartzela bakoitzean sakabanatuta daude, modulo ezberdinetan, ziega ezberdinetan.

- Gartzelan dituzten eskubideak edukitzeko gose grebak, txapeoak, planteak, etabar... edo noiz egin behar dituzte.

23 urte pasatu dira Euskal Herriko gartzeletan egoteko eskubidea kendu zietenetik. Senideak, gure eskubideak errespetatuak izan daitezten Bortzirietan hamaika urte oihukatzen daramagu, Nafarroako Gobernari, Nafarroako Elizari, presoak dauden gartzeleko zuzendariari, pro-

bintzia bakoitzeko auzitegiei erran diegu, baina ez digute kasurik ere egin, beste motako ate guztietan deitu dugu. Arrazola duzue erran digute, baina zigortuta segitzen dugu.

Euskal Herriko gartzeleko gogorrak, saminak eta tristeak, gerta ez daitezzen nahi badugu, denok elkar errespetatzen hasi gaitezke. Ez dugu erraten tolerantak izan gaitezke, elkar errespetatu dezagun baizik. Herri-tar guztiok gure iturri eta errekek garbi edukitzen saiatuko bagina, gure bihotzeko egarria ere kenduko genuke eta kanpotik datozenek, gugandik zer ikasirik izanen lukete ere.

Paxkual ETXEBERRIA
(Senideak)

Pisukide euskaldunen topagunea

Euskalduna bazara eta pisu bila bazabiltza edo zure pisuan lekunik baduzu zatorz Karrikirira, Iruñeko euskaldunen elkartera, edo hots egiguzu!

Gure helburua: Iruñean euskaraz bizitzeko aukerak zabaltzea eta kasu honetan geure ebaxetan ere aukera hori izatea.

Garai honetan nahiko mugitzen ari da ikasturtearen hasiera dela eta, batez ere eskaeraren aldetik. Hala ere eskaintza gehiago beharko genituzke dagoen demandari erantzun ahal izateko, izan ere Iruñea bezalako hiri unibertsitario batean zaila baita gelak alokairuan aurkitzea. Hori dela eta zuen laguntza eskertuko genizueke zerbitzu hau ahalik eta gehien zabal dadin, gela libre izaten ahal dutenen artean bereziki.

Interesatuak gure bulegotik pasa daitezke edo telefonoz deitu: Xabier karrika (Bajada Javier) 2 bis behe; 948 222589; Karrikiri@teletel.es.

Zuen arreta eskertuz, izan ongi eta hurrenarte.

Isabel FERREIRA
Karrikiriren idazkaria

Ttanttaka antzezlanerako sarrerak

Larunbat honetan, urriak 6, Berako Kultur Etxean Ttanttaka taldearen «Hor dago Koxka» antzezlan ikusgai izanen da arratsko 8etan. Ttipi-bartela dutenen artean egindako lau sarre-zen zozketan honako bazkideek lortu dute saria: M^o Carmen Lanz, Saioa Mixelena, Marian Iratzoki eta Patri Arburua.

Ttipi-ttapa Fundazioa

Zure inguru klase gutxiak moztuz (somono, praumo, emsami, kokatu...) eta amara-kapitez garbitu nahi baduzu, deitu! Gu ardurako gara honetatik. Termita eta Polifen kontrako tratamendua.

BERA
DESINFECTACIONES
☎ 948630155
BERA

SAROBE
okindegia

SANDERS Pentsuak
Ezlingan 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

MENDIALDE
Jatetxea

AMAUIR • ☎ 948453060

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

PIKABEA
Molinero drogerian galdetu

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpez 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • BERA

Alberto RETEGI
abokatua

Altzate 17
BERA
☎ 948 630 763

belardenda
Mediku naturista
kontsulta
Masajista

Legia 1, behe • BERA • ☎ 948 630652

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



GARA, 01eko irailaren 17a

«Medikura anaiarekin edo ilobarekin joaten naiz, erdararekin laguntzeko. Medikua zer dudan galdetzen didanean, ahal den moduan erantzuten diot. Eta errezetak direnean ez ditut ententitzen, farmaziara eraman egiten ditut, bertzenik ez.» «Ez dakit beldurra edo lotsa den baina egia erran ez noa lasai kontsultara. Medikua nahiz erizaina euskaldunak izatea gustatuko zitzaidan.»

Panttoleon
ERRANDONEA
Arantzako auzokidea
GARA 01-09-17

«Euskaraz ez dakien mediku bat, haurrekin batez ere ez da ondo moldatzen. Haurra, berez ez da gustura joaten medikuetara, ingurua arrotza egiten baitzaio, gure kasuan ere hizkuntza arrotza dugu. Horrek segurtasun eza eta beldurra areagotu egiten ditu. Hala gure pediatraren kasuan, nahiz eta euskararekiko jarrera baikorra azaldu, eta dakizkien lau hitzak haurrekin erabiltzen dituen, ez da nahikoa.»

Itziar VIGUERA
Leitzako auzokidea
GARA 01-09-17

• 11 GALDERA LABUR •



Josune ETXENIKE *Gartzaingo gaztea*

- Bestak antolatzen zeintzuk dira langileenak mutilak edo neskak? Mutilak, baina batzuk bakarrik.
- Jende gehiagoren laguntza behar izaten da? Gauza batzuek bai.
- Dirua izanez gero nor ekarriko zenuke aktuatzerara? Musika talde on bat ekarriko nuke.
- Besta gauzez edo egunez egitea gustatzen zaizu? Gauzez, askoz diskretoagoa da.
- Zein da etxera itzultzeko ordu egokiena? Gosaldi ondotik edo argitu duenean.
- Zein da bestetako ekitaldirik gustokoena? Zikro-jatea doike!
- Baserriko lanak gustoko dituzu? Segun zein. Bildotsekin lan egin behar bada gustatzen zait.
- Behiak edo ardiak? Ardiak. Behiek errespetu handia ematen didate.
- Zein da sekretua bestetako kontu guztiak ordaintzeko? Gutti gastatzea. Gartzaingo kontuek dauden bezala gainera...
- Non gustatuko litzaizuke lanean aritzea? Egin ditudan ikasketengatik ofizina batean, bertzela ostaturen batean ere ez zen gaizki egonen.
- Bestetako atorra prest duzu jadanik? Bai! Hori lehendabiziko gauza izaten da, beno beti amak garbitzen duela erran behar dut.

IRULICIO COHENTAE ETXENIERE

ANZABAL

AGENZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autos, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserrri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 13 - Hiriak via Fax: 948 631462 - ELIZONDIO

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak

ERREKALDE

ostatua

Tfnoa: 948630259 - BERA

948 631462
Alzate 1 - BERA

BAZTAN

ALTZARIAK

zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regencia, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km + Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

KULTURA

Laura Bellosoren «Azken Ipuina»k irabazi du Bidasoako Filme Laburren Zinemaldia

Urrezko Iratzea eta milioi bat pezeta eskuratu ditu Iruñeko zinemagileak

ttipl-itapa

Bidasoako Filme Laburren IV. Zinemaldiko filmeak irailaren 10etik 21era Elizondo, Doneztebe, Bera eta Hendalen eskeini ondoren, irailaren 22an, Berako Kultur Etxean burutu zen sari banaketa.

Lehenengo saria, Urrezko Iratzea eta milioi bat pezeta (6.012,12 euro) Laura Bellosoren zuzendutako «El último cuento-Azken ipuina» izeneko filmearentzat izan zen. Iruñeko José M^a Lara Produkzio etxeak ekoiztutako filme honetan Tomás, haur barkarti eta ameslariaren istorioa kontatzen da. Bere amak lan egiten duen gorputegiko hildakoen artean bizi da, amak eguneroko bizitza zikinetik babesteko asmatzen dizkion ametsetan gordea. Manuel, bere laguna, azken ipuineko heroia izanen da.

300.000 pezetako (1.803,04 euro) bigarren saria, berriz, Miguel Añon-ek zuzendutako



KARMELE TOLOSA
irailaren 22an banatu ziren sariak Berako Kultur Etxean. Ondean, «Azken ipuina» Urrezko Iratzea eskuratu zuen filmearen irudi bat.

«Otra historia diferente-bertze istorio ezberdin bat» filmearentzat izan zen. Zilarrezko Iratzea, beraz, Suitzako filme honentzat izan zen.

Bertzelako sari bereziak ere banatu ziren.



Brontzeko Iratzea eta 250.000 pezeta (1.502,53 euro) jaso zuen Parisko Safy Nebbou-k zuzendutako «Bertzea» filmeak, epaimahiaren ustez gai naturalistikoak, ekologiko-

ak, etnografikoak, ingurugirokoak edota paisajistikoak hobekien jorratzen zituena zelakoz.

Bertze horrenberteko saria jaso zuen Donostiako Maria Zarakolak zuzendutako

«Usoa» filmeak, kasu honetan bake eta giza baloreak modurik hoberean lantzen zituen laburmetraia izateagatik.

Sari nagusia bezalaxe, Akitania, Euskal Herria, Nafarroa edo bertako egile batek egindako filme onenari emandako bertze brontzeko iratzea eta 250.000 pezeta Laura Bellosoren «Azken ipuina»k jaso zuen.

Aktore onenak ere Brontzeko Iratzea eta 250.000 pezetako saria jaso zuen. Sari hau marita Belaustegirentzat izan zen, Sergio G. Sanchezek zuzendutako «7337» filmean egindako lanarengatik.

Ikusleen artean emandako puntuazioaren arabera, puntu gehien jaso dituen filmeak ere Brontzeko Iratzea jaso zuen, nahiz dirurik ez hartu. Ikusleen ustez Parisko Safy Nabbouk zuzendutako «Bertzea» filma izan zen onena.

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 948630735

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TEL 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

ERROTAZAR

Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA

ZELAIA Harategia

Agerra Auzoan

616 513 497

PITTI

ESKABAZIOAK

11700 DONEZTEBE (NAFARROA)

BERA

Euskal Herriko kantuen historia entzungai izanen da Kultur Etxean

"Kantuketan" erakusketa interaktiboak urriaren 5ean irekiko ditu atak

Asier GOGORTZA

Oroimena, formakuntza eta sorkuntza lantzea dira Euskal Kultur Erakundeak sortu duen «Kantuketan» erakusketa ibiltari honen helburu nagusiak. Urriaren 5etik 28ra Kultur Etxean ikusgai egonen den erakusketa hainbat bide erabiliko dituzte ikusleak euskal kantuen munduan murgilarazteko. Batetik, musika aditzeko kaskoak eta panel informatiboak izanen dira. Bertzetik bideo bat eta ordenagailuak ere ikusten ahalko dira, euskal kantuen inguruan jakin nahi den guziaz kontsultatzeko. Arratsaldeko 4.30etatik 8etara irekia egonen da erakusketa.



Erakusketa ikusten ahal diren paneletako batzuk.

UZBEKISTANGO KANTARIAK

Urriaren 9an Uzbekistango Dutortchilar emakume taldeak bisitatu du Kantuketan erakusketa, eta bisitaldia probextuz euren herriko zenbait kanta abestuko dituzte. Berako musikariaren laguntza izanen dute horretarako, Petti eta Joseba Irazoki gitarrojoleak ere bertan izanen baitira.

sikariaren laguntza izanen dute horretarako, Petti eta Joseba Irazoki gitarrojoleak ere bertan izanen baitira.

sikariaren laguntza izanen dute horretarako, Petti eta Joseba Irazoki gitarrojoleak ere bertan izanen baitira.

FLASH

Bide moldaketak
Dornaku eta Suspeltikiko bideak moldatzea onartu du Udalak.

Dantza garaikide ikastaroa

Urriaren 20 eta 21ean dantza garaikide ikastaroa emanen du Christine Burgos dantzariak. Lamixine BATEk antolatzen duen ikastaroan izena eman nahi duenak aski du 948 630 504 telefonora lehenbailehen deitzea.

Lurraren Eguna

Aurten ere Lurraren Eguna ospatuko da urriaren azkeneko igandean. Zuen baratzeko fruitu eta barazkiak erakutsi nahi dituzuen baseritarrek edo zuen sagardo eta gasnak lehiaketara aurkeztu nahi dituzuen eskulangileak oraindik garaiz zaudete antolatzaileekin harremanetan jartzeko.

Antzerkia

Bortzirietako IKA euskaltegiaren eskutik Tanttaka taldearen «Hor dago koxka» antzeziana ikusi ahal izanen da heldu den urriaren 6an Kultur Etxean. Arratseko 8etan hasiko da. Bertzalde, Ramon Albisturrek urte osoko ikastaroa emanen du helduentzat Berako Kultur Etxean. Urriaren 3an hasiko da ikastaroa, eta izen ematea urriaren 31 baino lehen egin behar da. Ikastaroa euskaraz izanen da. Informazioa eta matrikula: 656 761 899 telefonon.

MUSIKA ESPERIMENTALA

Chicagoko Aerospace Soundwise, Berako Kultur Etxean

Ortziral honetan, urriak 5, Todd A. Carter musikari estatubatuarak emanaldia eskainiko du arratseko 10etatik aitzinera kultur etxean. Aerospace Soundwise da bere izen artistikoa eta elektronikoa la-

saia eta ambientala da jorratzen duen musika mota. TV Pow hirukoteko kidea den arren hau da bere bakarkako proiektua. Sarrerak 500 pezeta balioko du. Musika esperimentalari aditzeko bertze aukera bat.



Asier GOGORTZA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Alzate, 5 • ☎ 948630063 BERA

ZALAIN
IATETXEA
Zalain Auzoa
☎ 948631106
BERA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Boda eta banketeak ematen dira

bortzIRUDI
BERA
FOTOGRAFIAK, ENLUADEPINAZOAK, PLASTIKAZOAK, FAXA, E-MAILA, SKANNERIA, ARGAZKI MUNTAIK, IMPRENTA LANAK, SERIGRAFIA, ERROTILAK, PUBLIZITATEA
Etegora 26 behea Tel.- Faxa: 948 63 15 21

LESAKA

Bosgarren aldiz paleta-goma txapelketa antolatu du Batzokik

Izen ematea urriaren 19a baino lehen egin beharko da

Aitor AROTZENA

Urriaren bukaeran, Batzoki elkarteak, Lesakako Udalaren, Nafarroako Rural Kutxaren eta Diario de Noticias egunkariaren laguntzaz bosgarren urtez antolatutako lehenengo mailako paleta-goma txapelketa hasiko da. Izena emateko epea urriaren 19an akautuko da eta bikote bakoitzak 4.000 pezeta ordaindu beharko du. Antolatzaileek dokumentazioa, kamisetak eta opari bana emanen dizkiete. Izena ematen duten 20 lehenbiziko bikoteek hartuko dute parte txapelketan.

PARTIDU GUZIAK LARUNBAT ARRATSALDE ETA IGANDE GOIZETAN

Partiduak larunbat arratsaldetan eta igande goizetan jokatu dira udal pilotalekuan. Izena emateko edo azalpen gehiago eskatzeko Batzoki elkartearen telefonoetara 948 627522 edo 600 903196 (Julian Igantzi) edo bertzenaz frontoira deitu (948 627518).

Bortzina bikoteko lau talde sortuko dira, eta talde bakoitzean ligaxka jokatu da, hurren-



KARMELE TOLOSA

Herriko Etxeak eta Bortzirietako bertze udalek behin eta berriz eskatu dute Behobia bitarteko errepidea moldatzea. Bien bitartean, istripuak noiznahi gertatzen dira. Azkenekoa irailaren 21ean izan zen, Endarlatsako zubitik beheiti argazkian ageri den kamioia erori zenean. Gezurra badirudi ere, gidaria onik atera zen istriputik.

go fasera nor pasatuko den erabakitzeke. talde bakoitzeko lehenengo bi bikoteek bigarren fasea jokatu dute. Bigarren fase honetan, final laurdenetatik hasita, sistema kanporagarria erabiliko da.

Bertze urteetan bezala, lau lehenbizikoentzat trofeoak, opariak eta sari ekonomikoak izanen da, baita txapelak irabazleentzat ere.

IKASTETXEA

Nerabetasunari buruzko mintzaldia izanen da gurasoentzat urriaren 11n Irain eskolan

Irain eskolako Guraso Elkarteak egunotan antolatu dituen mintzaldien barnean, nerabetasunari buruzko solasaldia eskainiko du urriaren 11n M^a Jesus Uranga sikologo, sikomotrizista eta familia tera-

peutak. Gurasoei zuzendutako solasaldia arratsaldeko 5,30etan hasiko da Irain eskolako balio anitzeko gelan eta haurtzaindegi zerbitzua izanen da. Nerabezaro garaiko ezau-garriak eta guraso eta

nerabeen arteko harremanaz ariko da, bertzeak bertze. M^a Jesus Uranga. Aitzinetik, 2-6 urteko haurren garapenez eta 6-11 urtekoen garapenez aritu zen, irailaren 25 eta 27an egin dako solasaldietan.

FLASH

San Fermin Jubilatuen Elkartearen Eguna

Urriaren 21ean ospatuko du bere eguna Lesakako San Fermin jubilatuen elkarteak. Goizeko 11,30etan Meza Nagusia izanen da aurtien hildako bazkideen alde. 2etan bazkaria izanen dute Kasinon, honako menu honekin: Entsaladilla errusiarra, zainzuriak, langostinoak, txanpinoiak, krocketak, redondoa saltsan, izozkia, edariak, kafeak eta purua. Ardoa eta txanpaina elkarteak paratuko ditu. Bazkarirako txartelak 3.500 pezetatik salgai daude elkartearen egoitzan. Txartelak urriaren 19a baino lehen hartu behar dira. Gimnasia ikastaroa ere astelehen honetan hasi da jubilatuen egoitzan.

Yoga ikastaroa

Astelehen eta ortziralek arratsaldetan eta ortzegun goizetan ematen dute Alondigan.

XATURETKEA
JATETXEA
Tlx: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
Tlx: 948 637 127
LESAKA

ANA
jantaridenda
Bltira 41 • 948 637518 • LESAKA

KATU
ostatu - jatetxea
Plater kabinatuak eta menuak
• 948627573 • LESAKA

tapi t'apa
• 948 63 11 88

ETXALAR

Iaz baino bi milioi pezeta guttiago lortu da Usategietako enkantean

Urte bukaerarako aparkaleku berria izanen da Bekolandan

Joseba eta Nerea

Irailaren 8an hasi zen Usategietako postuak eskuratzeko subasta. Urtero bezala udaltxeko areto nagusian egin zen enkantea alkatea, idazkaria, zinegotziak eta albintearen gidaritzapean. Jende mordoak bildu zen baina ez zen ehiztarien artean joan den urteko girorik sortu. Ondorioz ez zen postuengatik aunitz jokatu eta lortutako diru-kopurua iaz baino tikiagoa izan zen. Handik hamar egunetara sexta emandako postuen enkantea izan zen eta hau ere motel samarra suertatu zen. Posturik garestiena joan den urteko bera izan zen, 24.a: 703.0000 pezetatan adjudikatu zen. Bigarren garestiena 1. sarea izan zen 435.000 pezetatan eta hirugarrena 16. postua 391.000 pezetatan. Guzira 5.157.000 pezeta lortuko ditu aurren herriko udalak, iaz baino bi milioi pezeta guttiago.



NEREA MITHELICHONA

Iaz baino mugimendu guttiago izan zen Usategietako postuen enkantean.

Kultur Egunak

Udazkenaren etorrerarekin batera Etxalarko Euskara Batzordeak Kultur Egunak antolatu ditu. Joan den igandean hasi zen, «Izarretako Bitakora» antzezianarekin. Bigarren ekitaldia asteazkenean, urriak 3, arratsaldeko 8etan Herriko Etxeko areto nagusian izan da. «Zerlanetarako prestatu behar da gaur» hel-

du nahiz gazteentzako interesgarria den gaiaz aritu da Betisa Anda Cerderna Garalur-eko kidea. Ortziralean, arratsaldeko 4etan, haurren txanda izanen da, Itziar Zubizarretak kontaturiko ipuinaz gozatzeko parada izanen baitute Landagain eskolan. Urriaren 10ean berriz, Herriko Etxean ilunabarreko 8etan «Nola egin jostailu egokia au-

keratzeko» solasaldi interesgarria eskainiko dute Txatxilpurdí Taldeko kideek. Kultur Egunekin bukatzeko, Haurrentzako tailerra izanen da urriaren 11an arratsaldeko 5etan frontoian edo eskola zaharretan (eguraldiaren arabera). Bertan bildutako haurrek paperezko loreak, kariokak eta armiarmak egiteko aukera izanen dute.

FLASH

Gobernutik dirulaguntzarik ez liburutegirako

Martxan dauden Kultur Etxeko obren barrenean, liburutegia egin nahi da. Helburu hau antzineran ateri ahal izateko udalak Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskatu zion baina azken honek dirulaguntza ukatu dio, bere baremoen arabera puntuazio minimoa lortuz duelako. Udala ez da honekin bat etorri eta Nafarroako Gobernuari keza azaldu dio herriko beharrak kontutan hartzeko eskatuz.

Aparkaleku berria Bekolandan

Bekolandan aparkalekua egiteko lurra erosi zenetik 2 urte pasa diren honetan, obrak hasitzeko prest daude. Dagoeneko obrak norkegin behar dituen erabakita dago: Aurkezturiko bi enpresen artean Oiarzungo Iturberri S.L-ri eman diote aparkalekua egiteko lana, honena izan baita aurkeztutako aurrekonturik baxuena: 3.633.000 pezeta. Enpresa honek lanak burutu ahal izateko hila-bete bat eta 20 eguneko epea izanen du. Berraz, urte berria aparkaleku bat gehiagorekin hasiko dugu.

HARITZPE
948635235
948635038

GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

Egunero idekia. Asteazkenetan atseden eguna.

LEGARRA
Legarra, 9 • T. 948 637 030 • LESMA

IGANDE GOIZETAN IDEKITA BUCU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak esprelean ere egiten dira

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduerentzat pentsurik egokiena
Tfn: 948635214

ETXALAR

LEBEZAK
948631176 • BERA

IGANTZI

Herria ezagutuz

Mendi izan zen zakurrik onena Meakaundin egindako lehiaketan

Lehiaketaren erditik aintzina euripean egin behar izan zuten lan



Oskar TXOPERENA

Gipuzkoa, Bizkaia, Behe Nafarroa eta Nafarroako 11 artzain bilduziren Meakandiko begietan 22. Igantziko Artzain Zakur Lehiaketa jokatzera. Eguraldi goibelarekin hasi zen lehiaketa eta probak aintzina joan ahala, makurrak bertzerik ez zuten egin. Hasierako proba maila handikoa izan zen, eta ondorioz, lanak izan zituzten epaileek hurrengorako aukeraketa egiteko. Jorge Oteiza, Felix Irigoien -iazko irabazlea-, Luis Garaia eta Alejandro Ibarra osatu zuten finaleko laukotea, eta azken honek eraman zuen txapela, bigarrenarekin 40 puntuko aldearekin. Igantzira etortzen den lehendabiziko aldia

du lakuntzarrak, eta egia erran, badu probak horrelako jende berriaren beharra.

Idorpe berria

Ikasturte berria eskola atareko idorpe berriarekin hasi dute haurrek. Eguraldi txarrekin aterpe itiki samarra zegoen eskola atarian, ia barrenera sartu beharra zegoen, eta hutsune hori betetzen du orain egindako idorpeak.

Atal berria

Hemendik aintzina atal berria aurkituko duzue Igantziko berrien artean: Herria ezagutuz. Hamabortzero saiatuko gara herriko baserri, etxe, paraje edo, bertzerik gabe, gertakizunen baten historia laburra zuenganatzen.



Oskar TXOPERENA

Argazkian, Alejandro Ibarra lakuntzarra, lan bikaina egin zuen Mendi zakurraekin. Ikusten ahal den bezala, collie arrazakoa da Mendi, gaur egun lehiaketetan aritzen diren zakur gehienak bezala.

Etxagoien

Okolburun, gaur egun Goiz Argi etxea dagoen lekuan, gutti goiti behiti, zegoen Etxagoien edo Etxegoiien. Etxe handia zen, kastroetan arrautako datuen arabera, berehun metro koadrotik goitiko azalera baitzuen. Orain arte ikusitako dokumentoek, guttienez XVI. mendekoa zela adierazten dute, eta 1866ko katastroan oraindik zutik bazegoen ere, 1886an bere harria salgai zegoen. Hasiera batean, ohi zen bezala, etxearen izena hartu zuten jabeek abizentzat: 1605ean: "Thomas de Echegoyen"; 1665ean: "Joan Martin de Echegoyen, dueño de la casa de Echagoyen"; XVIII. mendean Yancitarrak izan ziren bere jabeak: 1788: "Diego de Yanci, dueño de la casa de Echagoyen"; eta ondotik, zenbat urtez, Thellecheatarrak ere: 1824 "Dueño de Echagoyen: Simon Thellechea Yanci". Geroztik, Loperenatarrak -lesakarrak- izan ziren etxearen jabeak -1867: "Juan Bautista Loperena Thellechea", gero lurra Jose Antonio Tabernari 1961ean saldu zioten arte. Etxe honen baserria zen Etxagoiengo borda.

EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuarekin
Plaza Berria, 13 • (948) 627547 **LESAKA**

TXIRULA
Ioredenda
Albistur, 39-K
• 627542
LESAKA
• bitxikeriak
• opariak
• enmarkazioak

KAXULA
- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak
Albistur, 51 **LESAKA**
• 948 63 75 58

Ostargi Optika
OPTIKO OPTOMETRISTA
• Lentillak
• Ikusmen azterketa orokorrak
• Begietako tentsioaren kontrola
• Haurrei errebisioa egiten zaie
**Eta behar izanez gero...
ERA GUZTIETAKO
BETAURREKOAK DITUGU
ZURETZAT**
Bidasoa Lanika, 8 • **BERA** • (948) 63 07 53

ARANTZA

Udazkeneko lan eta zaletasunetan murgilduak daude herritarrak

Iratzetan, onddotan eta ehizean mugimendua nabari da herrian

Nerea ALTZURI

Sartu berriak garen urtarorearen erretoak agerian gelditu dira Arantzaren ere. Udakoze-reginak bukatu eta baserritarrek udazkeneko lanetara lotuak daude. Iratze ximelezko metak nahiz arbuak eginez, iratze-lekuak soilduak utzi dituzte. Tenoreari erreparatuz, onddoak ere aisago ikusteko aukera du edonork. Onddo biltzailleek inguru garbiagoa dute onddoleku jakinetan ibiltzeko. Xoko mal-kartsuetan saiatzan denik ere bada ordea, izan ere, onddo frexkoekin saskiak bete dituztenak ere baitaude herrian.

Baina Ekaitza eta Bagotzar eremuetan ehiztariak ere erme daude dagoeneko. Hondar astean, setoak egiten,



Arantzaren

Zioren musika taldeak Nafarroako Bertsozaleen Elkartearen egitasmo batean esku hartuko du. Manolo Arozena bertsolari lesakarrak «Patxarana» gaia-ekin egindako bertsoak musikatu ditu Zioren-ek. Urrian estudioan grabatuko dute kanta. Nafarroako bertze talde batzuekin batera aukeratu dute Zioren diska honetako partaide izateko eta Bertsozaleen Elkarteak abudo karrikatutako duen diskan euren kantarekin gozatzeko modua izanen da.

mendietako pistak molatzen eta etxolak txukuntzen aritu ondotik

goiz-goizetik euren leketan egoten dira ehiztariak. Ehun pasatxo

bazkide daude Ekaitza eta Bagotzarren ehizi denboraldi honetan.

FLASH

Kultur Egunak

Azaroaren 1, 2 eta 3an izanen dira aurtengo Kultur Egunak. Baserritarren Eguna, bertze urte batez azaroaren lehenean eginen da. Herriarren eskulan, nekazarien produktu eta gainerako izanen dira herriko frontoian erakusgai eta ikusgai. Bertzelakoan, solasaldiak, kantaldiak eta haurrentzako tailerrak izanen dira Kultur Egunetako osagaiak. Herriko erakunde ezberdinetako ordezkariekin osatutako batzordea lanean ari da, eta aste honetan eginen duten bileran Kulturaldiko egitaraua zehaztuko dute. Beraz, hurrengo alean ekitaldi guztiak jakinaraziko dizkizuegu.

Lapurretak herrian

Azken asteotan ez ohiko bisitak izan dituzte zenbait etxetan. Eguzkialdeko Martixinkobordan eta Ekatzako ehiztarien etxola batean lapurrak sartu ziren. Dirua eta janaria ebatsi dituzte lapurrek.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
GESTIONES FUNERARIAS DEL NORTE, S.L.
☎ 900 704704

**FUNERARIA
ZERBITZUAK**

LESAKA-DONEZTEBE

24 orduko zerbitzua

Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletik
edozein herritara trasladoak

Tfnoa 948 637404.....LESAKA
Tfnoa 948 450475.....DONEZTEBE
Tfnoa 948 580971.....BAZTAN

Ibarrola Mertzaria
Haurrendako arropa
0-14 urte
Parrakia kalea 6 - Doneztebe
948450463

**BEINTZAKO
OSTATUA**
☎ 948 450 014
BEINTZA LABEIN



TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA

Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorak • Igerilekuekako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...



☎ 948 63 10 03

Fax: 948 63 10 03

Alkaiaga Ind-Baldun, 6 • LESAKA - BERA

PERTSIANAK

ERA GUDETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK



DONEZTEBE

Zortzi milako mendi bat igo zuten lehen nafarrak omendu ditu Errekak

Gerardo Plaza lekaroztarra ere gogoratu zuten irailaren 28an

tipi-Itapa

Erreka elkartearen 25. urteurreneko ospakizunen barnean, goi mailako hainbat kirol ekitaldi egin dira uda honetan: eskubaloi txapelketa (Caja Cantabriak irabazi zion finalean Portland San Antoniori), areto-futbol txapelketa (MRA-Xota garaile), birrindularitza eta bertzelakoak izan dira. Mendi taldeak ere zerbait antolatu nahi zuten, Erreka elkartearen baitan hainbat ateraldi egingen baititu. Honela, joan den ortziralean, irailak 28, zortzi mila metroko mendi bat lehen aldiz igo zuten mendizale nafarrei omenaldia eskaini zioten. Tartean, Gerardo Plaza, Lekarozko mendizalea zenak ere jaso zuen Errekakoen omena. Lehen aldiz zen 1979an Daulaghiri mendia egin zuten geroztik lau mendizale nafarrak eta lau kataluniarrak berriz el-

kartzen zirela. Honela, Pitxi Egilor, Xabi Abrego, Gregorio Ariz, Iñaki Aldaia, Pili Garusa eta bertze mendizaleak izan ziren zineman egindako ekitaldian. Lehenik argazkiak ateri eta luntxa izan zuten. Ondoren, espedizioan egindako filmea ikusgai izan zen, zine formatoan. Ondotik etorri zen omenaldia: plater oroigarriak eta kamisetak eman zizkieten omenduei.



1979an Himalaiako Daulaghiri mendia (8.172 metro) igo zuten mendizale nafarrak, tartean Gerardo Plaza lekaroztarra. 22 urte beranduago, Erreka elkartearen omenaldia jaso dute.

ERREBESTAK

Ezkurra, Lizaso eta Erreka elkarteak omenduz hasi ziren besta tikiak

Doneztebeko Udalak Koteto Ezkurra eta Iñaki Lizaso erremontelariari eta Erreka elkarteari egindako omenaldiarekin hasi ziren herriko besta tikiak irailaren 21ean. Ondotik, Pedro Bañares, Erreka elkartearen lehendakariak bota zuen txupinazoa.

Ondotik, egunero Beti-Alai txarangaren dionuek, larunbateko gazteen laxoa partida, patinaje festa, eta herri bazkariak, igandeko parapeite erakustaldia eta Gorritiren animalien show-ak eta gaueroko dantzaldiak bete zuten besta egitaraua.



Txupinazoa bota zuen Errekako lehendakariak.



APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetes
- Aina
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larri azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alferria
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataraktak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzes
- Artritis, erreuma
- Artrosia, Lumbalgia
- Bilburdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsalde 3-7etara. Ordus eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN

MALERREKA

Maika Ariztegi irabazi du Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa

Iturendarra aisa nagusitu zen irailaren 23an Uhartan

ttipi-**ttapa**

Irailaren 23an burutu zen Uharteko Iruñan Euskal Herriko emakumezkoen koxkor biltze txapelketa eta bertan garaile suertatu zen Maika Ariztegi kirolari iturendarra. Maikarekin batera Itsaso Hernandez eta Matxalen Montoia arabarrak eta Zuriñe Zabala nafarra aritu ziren. Latsaga auzoko neskek aisa irabazi zuen txapelketa. Zazpi minutu terdi behar izan zituen lana akitzeko. Bigarren postua lortu zuen Itsaso Hernandezek, berriz, zortzi minutu eta sei segundu behar izan zituen 50 koxkorak biltzeko. Montoia izan zen hirugarren (8'19") eta Zabala laugarren (8'35"). Lasterka eta aizkoran ez ezik, koxkor biltzen ere maila ederra erakutsi du Ariztegi.

Donamariako ur-zikinen sarea

Gaztelu, Azkarraga, Komentua eta Igurinen



Lasterka eta aizkoran ez ezik, koxkor biltzen ere emaitza bikainak eskuratu ditu Maika Ariztegi.

eginen den «Donamariako Kolektore sarea» izeneko proiektuak ukitzen dituen ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa dela deklaratu du Nafarroako Gobernua, irailaren 24an sinatutako Foru Dekretu baten bidez. Ur-zikinen sare honen proiektuak sortuko dituen nahi-

taezko desjabetzapenaren ondorioetarako derrigorrezkoa zen Dekretu hau.

Arkupeak elkarte Txillidaren Museora

Txillida eskulturgileak Lasarten duen museoa bisitatzeko asmoa

du Arkupeak elkarteak urriaren 11n. Museoa ikusi ondotik Donostiako Gros auzora joan dena, Plaza Berri jate-txean bazkaltzera. Bazkal ondoan dantzaldia izanen da eta autobusak arratsaldeko 7etan itzuliko dira herrietara. Bidaiaaren prezioa 4.000 pezetakoa da.

Beintza-Labaiengo bide eta hustubideen sareak 347 milioiko aurrekontua

ttipi-**ttapa**

347 milioiko aurrekontua Nafarroako Gobernua baimena eman dio Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elidakura kontseilariari Beintza-Labaiengo bide eta hustubide sarearen obren proiektua «Transformaciones Agrarias, S.A.» enpresari emateko, 347.555.000 pezetaren truke (2.088 milio euro). Aurreikusirik inbertsioa honelaxe banatuko da. 20 milioi pezeta aurten; 80 milioi pezeta 2002. urtean eta 247.555 milioi 2003. urtean.



PAGOLA TXISTORRAREN IZENA

© 948 630 054
Alzateko Plaza, 2
BERA

LESAKA

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenerik asteazkenera 9-13kara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, Betatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Biltzia 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI S.L., © 948133328-133346, Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

GOIZUETA

182 milioi pezetako aurrekontua izanen du Udalak aurten

Tartatxulo eta Tantailepo inguruetan 33.000 landare sartuko dira

Esteban AROTZENA

Azkeneko plenoan Herriko Etxean bildutako zinegotziek ahobateko onarpenera eman zioten mahai gainean jarritako 181.940.355 pezeteko aurrekontuari, lazko kontuak ere bilkura berean onartu ziren.

Aurrekontu hauei gainbegirada bat emanez esan, dirusarreraren erditsua mendiaren esplotaziotik etorriko dela, 90 milioi pezeta. Gastuen atalean aipagarriena saneamendu sa-

rearen berritzeak eramanen dituen 30 milioiko aurrekontu-saila.

TARTATXULO ETA TANTAILEPOKO LANDAKETAK

Menditik jasoko diren dirutzak esanak daude, baina aipatu beharra da bildutakoaren puska haundi bat berriz bertan inbertituko dela ere. Aurtengo aurrekontuetan daude, esate baterako, Tartatxulo eta Tantailepo izeneko mendi komunaletan 27 Hektarea landatzeko



ESTEBAN AROTZENA

Garai batean kuartela izandako etxe honen beheko solairuaren puska bat Zaharren Egoitza egiteko erosi zuen Udalak bere garaian. Lokala behar bezala prestatzeko dirulaguntza eskatu zitzaion Nafarroako Gobernuari, baina honek ezezkoa eman du. Aurtengo aurrekontuetan ez omen daukate Goizuetako zaharrentzat dirurik.

erabiliko diren 12 milioi pezetak. 33.000 landare inguru sartuko dira aipatutako parajetan, 23.000 Tartatxulon eta 10.000 Tantailepon. Hauetatik %60a insignis pinua izanen da, eta

%15a larizioa. Gainerakoak, %25a, hostozabal edo frondosak izanen dira: haritzak, pagoak, lizarrak, gereziak, etabar. Gai honekin bukatzeko esan, Tantailepo landaketa hau An-

dres Eskudero «Berdabio»-k eginen duela 3.629.500 pezetaren truke. Tartatxulo berriz, 8.399.000 pezetako baliorekin herriko Isaac Perurenak hartu du bere gain.

ARESO

Trikitixa, pandereta eta ingeles ikastaroak hasi dira ikasturtearekin bat

Antonio Alustiza eta Jai txakurra bikain

Juana Mari SAIZAR

Ikasturtearen hasierarekin batera, hainbat ikastaro antolatuta dira: Pandereta eta trikitixa Guraso Elkarteak eta ingelese Udalak.

Gripearren kontrako txertoa

Gripearren kontrako txertoa urriaren 4 eta 25ean egingo da herriko mediku kontsultan.

Aldez aurretik ordua eskatu behar da 948 510800 telefonoan.

Antonio Alustiza eta Jai

Antonio Alustizak eta Jai bere txakurrak Euskal Herriko txapelketan 3. postua lortu zuten. Irailaren 23an, artzain txakur onena izendatzeko Nazioarteko txapelketan 4. izan zen Oñatin.



ANTXEOKITA

Alustiza eta Jai lanean, Uharteko-Arakilgo lehiaketan

Ehiza postuak

Usoa Ehiztarien Elkarteak eta Udalak ehiza postuen kontratua berriki dute bi urterako. Urte bakoitzeko 500.000 pezeta ordaindu behar du elkarteak eta gas-

tuak bere gain izango dira. Badirudi 2003. urtean Leitzakoekin batera elkarte beharko dutela ehiztariak, lege berriaren arabera herriko kotoa nahikoa ez baita izango.

Lur sailaren enkantea

Etxebizitzak egiteko lursaila irailaren 26an subastatu zen Udaltxean eta urriaren 4ean sexta emango zaio leku berean.

LEITZA

Zaborrak bereizteko kontzientziazio kanpaina

Zaborontzietan pegatinak jarri ditu Udalak

Joseba AZPIROZ

Urte mordoska badira zaborren bilketa selektiboa egin ahal izateko kolore ezberdinetako zakarrontziak jarri zirela baina halere oraindik ez da zaborra behar bezala bereizten. Horregatik Udalak kontzientziazio kanpaina berri bati ekinen dio eta zakarrontzietan pegatinak jarriko ditu. Hauen, hiru kontzeptu gogoraziko dizkigute: Batetik, zakarrontzi urdinetara papera eta kartoa besterik ez dela bota behar (bestelako zaborra botaz gero, zakarrontzi hori zabor organikoetara hustuko da, askoren lana baliogabetuz). Zakarrontzi berdeetan berriz, zaborrak poltsatan bota behar direla jarriko dute, oraindik badirelako pertza eta poltsak zakarrontzietan hustutzen dituztenak. Azkenik, beira jasotzeko kanpaletara, beira besterik ez dela bota behar gogoratzen dute.

Bestalde, boluminosoak hilerio, lehendabiziko, bigarren eta hirugarren asteazkenetan biltzen direla gogorazten dute. Itxaroterik ez dagoen kasutan besterik ez dira boluminosoak industrialdeko pabiloira eraman behar.



ARTZBOKA

Zaborra ez da behar bezala bereizten oraindik.

Gorritaran garbitzeko auzolana

Irailaren 15ean, bigarren deialdia egin ondoren, 6 lagun bildu ziren Gorritaran erreka garbitzeko auzolanera. Oso jende gutxi ia 3.000 biztanle dituen herri baterako. Halere hiru zakarrontzi zabor bete zituzten herri sarreratik hasi eta Erasote errekaarekin biltzen den puntu arte. Andamioak, hodiak, perrilak, paperak, arropak, gozoki papera pila bat (gehienbat eskola parean), 100 bat kilo burni... atera zituzten.

Gitarranbuelako zabortegia

Gitarranbuelako zabortegiko moldaketa lanak hasiak dira. Udalak 64.075.516 pezetatan Coyser S.L. enpresari eman zion lana. Nafarroako Gobernuak 55 milioiko dirulaguntza emanen du. Alde batetik zabortegiaren moldaketa egingen da. Bestetik, Erasote erreka bideratu, eta euri asko egingero trenbideak presia egin dezakenez, gainezkabideak egingen dira. Arriskua kentzeaz gain, itxuraldaketa ederra hartuko du inguruak.

ARANO



ESTERAN AROTZEMA

Olairen senideak errautsak hedatzen Sorotxon.

Olaia Castresanaren errautsak Sorotxon

Euskal Herriko beste lekuetan ere hedatu dituzte

Kontxi KLABER

Joan den uztailaren 24an Torreveijan hil zen Olaia Castresana eta berak nahi zuen bezala bere errautsak Euskal herri osoan zabaltzen ari dira.

Irailaren 22an Urkioia eta Aramaion, 23an Aranon eta Donostiako Irlaneta asteburu honetan Senpereko lakuan, Iratin eta Mitikilen zabaldu dituzte.

Goizeko 10ak aldera, 200 bat lagun elkar-tuztuz Aranoko plazan. Sorotxon itsas aldera begira ekitaldiari hasiera eman zitzaion Txalapartarekin, gero bi bertso hunkigarri kantatu zituen Xabierrek ondorean G. Arestiren Olerkia "Nire aitaren etxea" irakurri zen, azkenik Goizuetako lau dantzari Agurra dantzatu zuten. Senitartekoek haizerratu zituzten Errautsak Petaloekin, eta lagunak arrosa hori batzuk utzi zituzten lurrean. Olaia Aranora etortzen zen lehendik ere eta bere nahia izan da bertan izatea.



PERTSONAIA

Saharako KORI

Saharatar bat Suro auzoan

Uztailaren 18an etorri zen 2 hilabeteko bilsatuarekin, Kori izeneko 14 urteko Saharako gaztea. Lehenengo egunak gogorak izan ziren bai mutilarentzat, baita Beltseko-bordakoentzat, baina berehala ohitu ziren. Hitz egin erdaraz egiten zuen, azkenerrako euskara ere zerbait nahasiz. Suron egin zituen lagun pare bat eta hor ibili da jotasu bizikletan. Etxekoek alde batetik bestera ibili dute eta mutila ere saiatu da belarretan. Irailaren 10ean Bilboko Aeroportura eraman zuten Kori negarrez, baina bere aitarekin elkartu zenean aldatu zen eta pozik ekin zion bidaiari.

tipi ttapa
948 63 11 88

BULDAIN
agentzia inmobiliarioa
larunbat goizetan behago irekia
Amazabal 37 (eskola ondoan) • LEITZA (Nafarroa)
948 310534 / 649 476615

BAZTAN

Anizko Arrosarioko Amabirjina urriaren 6tik 9ra arte

Astelehenean Baztango V. Golf Txapelketa ospatuko da

Launbeta 6

20:00etan EZKIL-JOZEA beste hasiera emateko. 21:00etan BAZTAN ZOPAK. 00:30etatik 04:30ak arte dantzaldia MINDEGIA Triki Band taldearekin. Ondotik zinger jatea.

Igendia 7 Amabirjinaren Eguna

11:00 DONEZTEBEKO TXISTULARIEKIN kalejira. 12:00 Meza Nausie 13:00 Otordue 17:30 Pilota Partiduak 18:30 GORRITiren animaliak. Ondotik gaiteroak.

Astelehena 8

9etan Baztango V GOLF TXAPELKETA. 10:30etan Pilota Partiduak 12:00 Mus Txapelketa. 14:00 Paellaz asetzeko aukera. 17:30 HAUR JOKOAK 19:00 Txokolate Jatea 21:00 Herri afaria. Ondotik dantzaldia JOXE ANGELEKIN. Akitzeko Anizko VI. PUTZIPAR-TO LASTERKETA.



Asteartea 9

12:00 Pilota partiduen FINALAK. 13:00 Mus Txapelketaren FINALA. 14:30 Zikiro Jatea, JOXE ANGELEK alaitua. Ondotik txiste kontalariak. 17:00 SOKA-TIRA ezkonaduak ezkongabeen aurka. 21:00 Zinger jatea. 00:00 GIXAJUA NI, beste akabaila emateko.

Behetian, herriko gazteak Anizko bestetan aspaldi animaleko giroarekin. Goitian, Arizkungo danbolinak 1942an Anizen



FLASH

Oihaneztatze lanendako laguntzak

Nafarroako Gobernuak 28,7 milioi pezetako hainbat urtetarako gastua onetsi du Berromalda izeneko bazterrean oihaneztatze lanak egiteko. Era berean Baztango bertze hainbat lekutan oihaneztatze eta garbitze lanak egiteko Udalak 32 milioi baino gehiago onartu ditu.

Produktu Artisauen hauteskundeak

Nafarroako artisauen hauteskundeak burutu dira eta edarien atalean «Larraidea Sagardotegiko» Jesus Angel Gartzia eta «Licores Baztan»go Jose Manuel Ibañez izanen dira batzordekideak. Urriaren komite berria eratuko da presidentearen hautaketarekin.

Ordenagailua liburutegian

Baztango liburutegiak laster interneteko konexioa duen ordenagailua izanen du. Nafarroako Liburutegi Publiko gehienak aspalditik zuten Internet zerbitzua eta orain, Baztangoak ere izanen du, irakurleek nahi dituzten kontsultak egiteko.

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
Aseguru orokorrak
948581468 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 • Ametzialde 3B • ELBETE

ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • 948 580 562 BURLATA

JATETXEA
948 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

MENDI OSTATUA
Santiago 25 • 948 580313
ELIZONDO

BAZTAN

Baztango eskuara ikertzeko Mariano Izeta bekaren deialdia

Milioi bateko dirulaguntza onartu da lana egiteko

Rakel GOÑI

Baztango Udalak euskarazko ikerketa sustatzeko eta Mariano Izeta jauna omentzeko, honen izena duen ikerketa-bekarako deia egin du. Ahozko tradizioaren eta etnografiaren munduari lotutako gaiak aztertu beharko dira. Xedea Baztango euskararen ahozko tradizioaren inguruko oro berreskuratzea eta biltzea da. Ondare hori sailkatu beharko da eta lana, Baztango ikastetxe, kultur elkarte eta oro har gizarteaz zabalitzeko proposamena egitea da. Lana egiteko epea urte batekoa izanen da. hautagaiak erdi edo goi mailako



XABIER OSPITAL

Erratzuko emakume talde honek mendi ibilaldia egin zuen Infernuko Errekarat.

lako tituluak izan behar dituzte, bakarka edo taldeka aurkez daitezke

eta EGA agiria edo balioidea behar dute. Epea 2001eko azaroa-

ren 16an akituko da. Eskakarak Baztango Udalean aurkez daitezke.



JUAN LAMERIÑASEK

LEHIAKETAK

Lameriñasek Donibane Garazin epaimahaiaren saria jaso du

Juan Lameriñasek, Elizondoko argazkilaria, Donibane Garazin egiten den argazki lehiaketan epaimahaiaren saria jaso du ezkerrean ikus daiteken argazkiarekin. Irudian Pedro Jose Bikondo zena ageri da su bazterrean jarrita. Hirugarren urtez segidan, argazki lehiaketara aurkeztu da Lameriñasek, eta aurreko edizioetan publikoaren saria eta epaimahaiaren 2. sari bat jaso zuen. Aurten 5 argazki aurkeztu zituen eta 5ak hautatu zituzten Prison

des Évêques aretoan egin zen erakusketa-lehiaketarako. Baztandarrarekin batera bertze batek ere, Lander Goñi Arizkundarrak, publikoaren 3. saria lortu du. Donibane Garaziko argazki lehiaketa gero eta ospetsuagoa da eta antza denez Baztandarrak ederki moldatzen dira bertan. Hautaturiko 70 argazkien artean ingurukoek hiru sari lortu baitituzte. 2001eko edizioan Nepal-i buruzko erakusketa monografikoa egon zen zabalik aipatu aretoan.

FLASH

Aparkalekua egiteko baimenik ez

Iparraideko Konfederazio Hidrografikoak Baztango Udalari jakinarazi dio, Jaime Urrutia karrigan egin nahi diren lur azpiko aparkalekuaren obrendako, ez diola baimenik emanen. Antza denez Konfederazioak egindako ikerketen arabera, egin nahi diren lanak ez dira bideragarriak. Hori dela eta Baztango Udalak informe hori bidaltzea eskatu dio Konfederazioari, Udalak azter dezan.

Arraioz 2. konbinadan txapeldun

Irailaren 23an Elizondon ospatu zen Nafarroako Herriz Herri Txapelketaren finalean, Arraiozek bigarren konbinadan (harrijasotzea, txingak eta ingudea) txapelduna suertatu zen, iaz bezala. Proba burutzeko 2 minutu eta 45 segundu behar izan zituzten arraioztarrek bigarrena baino 10 segundu guttiago. Lehenengo konbinadan orde, (koaxkor biltzea, zakua, aizkora, korrika eta arpana) Arraioz bigarrena izan zen Berriozarren gibeletik. Zorionak arraioztarrei!

Mozorro berri antzerki zikloa Elizondon

Urtero bezala *Mozorro Berri* antzerki kanpaina Baztanera iritsiko da. Urriaren 26an TEN Pimpilinpauza taldeak «Oz azitia» lana eskeinitu du. Nafarroako Gobernuak antolatutako zikloa azaroaren 16an berriro itzuliko da Behi Bi's antzerki taldearen «bertsotas» lanarekin.

Zuzendari aldaketa herriko eskolan

Lesakara mendi ibilaldia izanen da

Margari eta Koro

Ikasturte berria hasi dute gure haurrek. Aurtengo aldaketa nabarmena, zortzi urtez zuzendari izan den Anabel irakaslea gan zaila da. Beharrik ia ez berte bi irakasle erpikatzen dutela (irakasle aldaketa urteroko arazoa da). Halere arazo guztien gainetik irakasleek ilusio aunitz eta laneko gogoia erakusten dute. Ikasturte honetan ez da Ustaritze-ko piszinara gaterik izanen, ibiltarien ordutegi-kin arazoak izan direla-koz, baina heldu den ikasturterako erreserba egina da. Gaiarekin segituz, ikasleek egiten duten hurrengo irteera urriaren 26an Elizondoko ferietara izanen da. Alpatu ere ikasturteak antolatu direla: idaz-

makina eta informatika (3. mailatik goiti) eta ingelera. 6 ikasle berri hasi dira eta denetara bi eskoletan 40 haur daude: Zugarramurdiko eskolan haur hezkuntza eta 2. maila arte; eta Urdazubikoan 3. mailatik DBHko 2. mailara (asteazkenetan Lekarozko instituturara gaten dira hauek amankomunak diren ikasgaietara, teknologia eta musika).

Mendi ateraldiak

Uztaila eta abuztuaren oporrak hartu ondok, irailaren 15ean egin zen berriz Zugarramurditik mendi ibilaldia, honetan Ezpeletara. Hurrengo Lesakara tokatzen da. Usaian hilabetearen 3. igandean egiten bada ere huntakoan igande bat aitzindu da, urriaren 14ra. Ez despistatu.



Ezpeletako bidean, Arrano Mendi urrunean.



Martín García / UZTA

Gartzaino gazteak, duela hiru urteko zikiro jatean.

Gartzaino Pilarika urriaren 11tik 14ra

Pilarika egunean duatloia ospatuko da Gartzainen

Ortzeguna 11 Bezpera

17:00etan Txupinazoa eta ezkil-jotzea. Ondoren mus txapelketa. 21:00etan BAZTAN-OPAK Fransenen. 24:00etatik aitzin dantzaldia MIKEL SALABERRIREKIN.

lariekin. 12:00 Meza Nagusia eta prozesioa Arzategiko basilizian. Ondoren hamaiketakoa. 17:00 DUATLOIA. Arratsaldean eta gauetan dantzaldia MIKEL SALABERRIREKIN. 22:00 Mutil-Dantzak.

Launbeta 13 Herriaren egune

11:00etan Futbito Torneoa. 14:00 Herri bazkaria. 18:00 Dantzaldia MIKEL SALABERRI-

REKIN 22:00 Mutil-Dantzak. 24:00etatik aitzin Dantzaldia MINDEGIA TRIKI BAND-ekin

Igendia 14 Haurren egune

12:30etan Meza nagusia herritik kanpo dauden alde. 16:00etan Txokolate jatea eta gaztelu puzgarriak. 20:00etan Dantzaldia MIKEL SALABERRIREKIN eta besten akabaila.

Ortziera 12 Pilarika Egune

11:00etan Ezkil jotzea eta argi soinuak txistu-

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago, 88 - t. 948 580939
ELIZONDO

**UDAZKENEKO
ARROPAK**

bertseak, gonak, galtzak, trajeak,
soinekoak eta osagarriak

Okindegia

Jatetxea

Uxo

Finca del Marqués - 2000 y 1985 - 2000 y 1985

- Okindegian
- Ogi artisaua, eguneko eta txapata
- Jatetxean
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrikan erretako jakietan



*Enhargatuz gero,
bildotsa ogi-labean erre.
Gozo-gozoa!*

SARA

Bixente Garzia preso ohia buruilaren 20an libratu zuten

Urriaren 14an presoan aldeko martxa iganen da Larrunerat

Aña Mari eta Fred Urriaren 14an, igandearekin, euskal preso politikoen aldeko martxa egingen da Larrunerat. Abiatzeak Sara, Bera eta Azkaineko plazaetik finkatuak dira goizeko 9etan, eguerditan Larrun puntan izateko eta kaxkoan egingen den ekitaldian parte hartu ahal izateko.

Presoen gaiarekin segitzeko, buruilaren 20an Bixente Garzia libratu zuten baldintzapeko askatasuna onartu izan zaiolako. Etxeratu eta bi egunetara 150 presunek ongi etorria egin zioten. Aurrekua dantzatu ondotik, Manex Bergarak eskribatufako bertsoak aditu ziren. Hona hemen bere bertsoak:



JANER PACHECO
Bixente Garzia preso ohiak ongietorri aurrekua eta bertsoak jasoz zituena, buruilaren 22an egindako ekitaldian.



FLASH

Gimnastikako klaseak

Osasuna elkarrekin Saran proposatzen dituen gimnastikako klaseak berriz hasiak dira ikastola ondoko gelan. Jakinez lehen klasea urriarik dela, ez lotsa eta joan entseiatzera! Hehetasunak izateko deitu 05 55475389 edo 05 59 54 2828 edo 0559542359.

Sarako Izarra errugbi taldea

Sarako Izarra Errugbi taldeak denboraldia buruilaren 30ean hastekoa baldin bazuen ere Idron-en kontra (arratsaldeko 3etan Animanio zelaian), orain ardegin prestaketa partida guziak irabazi ditu. Hala nola, bai Azkaine, bai Ordizia eta bai Amou-ren aurka jokatu dituzten neurketak irabazi dituzte basurdeek. Ea martxa berean segitzen duten partida ofizialetan!

Senatoreen hautaketa

Buruilaren 23an Frantziako senatoreen hautaketa iragan da. Bozketak horiek 9 urtetarik egiten dira. Pirinio Atlantikoetako 1500 hautetsi baziren hautatzeko, horien artean Euskal Herriko 600. Saratik, Herriko Kontseiluak hautatu Aniotzbehere, Libier, Uhart, Ivandekics eta Sorriano jaunak joan dira Pauera bozkatzerat. Azpimarratzekoa da Euskal Departamenduaren alde agertu den André Darraidou lehena atera dela Euskal Herrian. Departamenduan aldiz, ez da mirakulunik gertatu eta Ezpeletako auzapezaren zerrendak ez du botu askirik eskuratu Parrisera joateko.

ONGI ETORRI BIXENTE

Zoriontsua izan dadila, Saran egungo eguna Hainitz jasanik gutaratu den, Bixente gure laguna Argiratu den ezaguturik, denboraldi bat iluna Bilkura hunek heda dezala, hemen dugun batasuna deneri esker aurkitu dezan: Euskadik askatasuna.

Beso bihotzak zabal zabalik, gehien bat estu zintzurak Zaituzte hemen, anai arrebeak, eskaintzen beren agurrak Guziak berdin zaintzeko diren, gure sort lekuak lurak Zuzen bidean batera gaiten, bazter utzirik beldurrak Euskal Herriatik kanporatzeko, ditugun etsai maltzurak.

Bururatzeko deneri hemen, bihotzetik esker mila Etorri zaitzen ospatu nahiz, gu denen lagun hurbila Hitz zilarrezko den eta, urrezko denak bila Agur Bixente, Ongi Etorri, zu eta zure familia Behin betikotz zorionezko, bakean bizi dadila.

ttipi ttapa
948 63 11 88

COZOTEGIA OKINDEGIA
L. A. L. ETCHE-ONA
AIZKAIN
Tel. 59 54 01 67

HERRIKO ETXEROKO EDARTEGIA
CAFÉ DE LA MARIÉE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL. 0559542519

AZKAIN

Plazan Ostatuko pala xapelketak 104 pilotari bildu ditu aurten

Bigarren taldeko finala euriagatik gibelatua izan zen

Ihintza, Angela eta Eneko Plazan ostatuko Pala xapelketa Ekainaren 10an hasi eta Irailaren 22an finitu zen. Maider Laduchek 52 bikote bildu zituen aurten (104 pilotari). 3 taldetan banatuak izan ziren. Zaharragoen taldean Jeannot Ibarburuk eta Pantxo Ourdanabiak irabazi zuten Battitt Inda eta Pierrot Ibarbururen kontra: 40 eta 23.

2. taldeko finala euriagatik gibelatua izan zen Irailaren 26erak: Lavigne Clément-Ubiria Sébastien eta Eneriz Regis-Amadoz Pierre. Lehen taldeko finalean Gillou SALHA eta Stéphane DUHAUT-k Pantxo Larroquet eta Jean-luc Sigau-ren kontra irabazi zuten (40 eta 32). Zorionak parte-hartzaile guzietan eta helduden urte arte.



Eneko JORAJURIA
Plazan ostatuko pala xapelketan parte hartu duten pilotari batzuk, Maider Laduchekin batera.

FLASH

Ambrouille antzerkia urriaren 5ean behar bada

Irailaren 21eko emanaldia ez zen egin euriarengatik. Ambrouille antzerkia kanpoan egitea hautatu zuten antzerkilariek, baina aroak bertzelako erabakia hartu zuen: euri parrasta batek dena trenpatu eta, materiala ez zen gehiago erabiltzen ahal. Ehun bat jende hurbildu zen trago baten edateko ala ere sustenguz behar bada. Han erabakia izan da Urriaren 5eraino gibelatua izanen zela antzerkia baimena guziak lortzen ahal baziren eta barnean egiteko posibilitatea baldin bazen.

GAZTETXEA

Gaztetrearen Eguna euripean

Irailaren 22a euriparrasten artean bainan giro onean iragan zen. Larunbat eguerditan 100 bat gazte bildu zen Inguretako gaztetrearen arteko bazkarian. Arratsaldean futbol xapelketa antolatua zen herri guzieren artean. 13 talde osatu ziren. 2 ornez bat bertzearen kontra aritu ziren 5 minutako partidak eginez. Azkenean Miarritzeko gaz-



Enhancer taldea

teek irabazi zuten. Arratsaldean kontzertu-dantaldia hasi zen saskibaloi salan. Ainitz Enhancer taldea ikusterat etorriak baldin baziren ere gehiengoak talde


berri batzuen ezagutza egin zuen (Mahamudra, Josiruli eta Bigira). Gaztetrearen aldeko dinamika eta beren arteko elkartasuna argiki sentitu dira asteburu hortan.

EUSKARA

AEK-ko kurtsoak Azkainen emateko asmoa dute

Azkainen AEK-k euskarazko kurtsoak antolatu nahi ditu. AEK-n maila guzietako jendea onhartua da: fitxi ez dakiena, mintzatzen dakiena bainan irakurtzen ez dakiena, bai eta bere maila hobetu nahi duena gramatika eta hiztegia landuz. Ez da lehen urtea AEK-ko kurtsoak izanen direla Azkainen. 1981etik 1995erak emanak izan ziren. Joxet Oxandabaratz, Beñat Azarete eta Pantxika Telleria izan ziren erakasleak. 1996an, ikasleak eskas baitziren elkarteak desegin zen eta Donibane Lohizungo AEK-k onhartu zituen Azkaingarrak. Eta hala segitzen dute geroztik. Aurten ikasle kopurua eta bakotxaren mailaren arabera antolatuko dituzte taldeak.

Maderas GOMEN



Zaldibia Poligonoa • IRURITA • t. 948 580 545

- Era guzietako atek, janbak eta reguesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

HORTZ KLINIKA

Dr. Guy Cadillon



HORTZ ESTETIKA

INPLANTOLOGIA (30 urteko esperientzia) • ORTODONTZIA

EZKONTZAK

Juan Jose Oteiza Sarratea eta Beatriz Aitzuguren Gastesi, NARBARTE eta ELIZONDOKOA, uztailearen 21ean.

Francisco Arretxea Elizalde eta Beatriz Mikeo Zugarramurdi, ZIGAKOIA eta ITURENGOIA, abuztuaren 25ean.

Javier Baraibar Burgete eta Izaskun Gortari Sein, ARRAITZ eta ORNOZ-MUGAIRKOA, irailaren 8an.

Jesus Irigoien Arretxea eta Maria Belate Inbuluzketa Lukin, DONEZTEBE eta ELIZONDOKOA, irailaren 8an.

Francisco Javier Baiona Baquedano eta Irene Irureta Ródenas, Iruña eta Iruñitakoa, irailaren 15ean.

David Vazquez Gonzalez eta Maria Luisa Azkarate Morales, Bera eta Elizondokoa, irailaren 15ean.

Jesus Jaurena Jaurena eta Maria Soledad Moreno Goñi, Eibete eta Iruñekoa, irailaren 22an.

Jose Francisco Iriarte Beraza eta Irene Alduntzin Zestau, Baraibar eta Leizakoa, irailaren 15ean.

Ramuntxo Berruet eta Fabienne Goletxe, Sarakoak, buruilaren 1ean.

Joslane Tapia eta Daniel Gachen, Sarakoak, buruilaren 15ean.

Christien Ibarra eta Thérèse Endara, Senpere eta Sarakoa, buruilaren 22an.

Martin Etxeberria Balda eta Eider Sagastibeltza Sestorain, Antsoain eta Leizakoa, abuztuaren 4an.

Eduardo Fagoaga Lopez eta Maria Esther Alvarez Fernandez, Bera eta Lesakakoa, ekainaren 23an.

JAIOTZAK

Gaizka Agirre Urrotz, NARBARTEKOA, uztailearen 17an.

Nerea Albiasu Azkarraga, NARBARTEKOA, uztailearen 24an.

Sara Jimenez Jimenez, OIEREGIKOIA, uztailearen 25ean.

Ibai Irungarai Solano, ELIZONDOKOA, irailaren 12an.

Isabel Baylon Iturralde, ELIZONDOKOA, irailaren 12an.

Victor Urrutia Etxeberria, Iruñitakoa, irailaren 5ean.

Maitane Etulain Bidegain, ARIZKUNGOIA, irailaren 13an.

Maider Aitxu Aizpuru, ALMANDOZKOA, irailaren 15ean.

Aimar Jabalera Juanena, DONEZTEBEKOA, irailaren 7an.

Aloña Zabaleta Uranga, LEIZAKOIA, irailaren 17an.

Alba Lasarte Rodriguez, BERAKOIA, irailaren 16an.

Mikel Indaburu Loidi, Etxalarkoa, irailaren 17an.

Nerea Ordoki Etxepeteleku, LESAKAKOIA, uztailearen 16an.

Ander Goizueta Barriola, LESAKAKOIA, irailaren 23an.

HERIOTZAK

Natividad Maritxalar Apeztegia, LESAKAKOIA, abuztuaren 20an, 90 urte.

Consuelo Rodríguez Carracedo, LESAKAN, abuztuaren 22an, 87 urte.

Amalia Bariazarra Lauzirika, LESAKAN, abuztuaren 26an, 79 urte.

M^a Victoria Oiartzabal Matxikote, DONEZTEBEKOA, abuztuaren 29an, 72 urte.

Mercedes Bertiz Apeztexea, BERAKOIA, irailaren 2an, 87 urte.

Jose Felix Beltran de Otalora Ruiz de Asua, NARBARTEN, irailaren 1ean, 38 urte.

Jose Ubiria Iturria, LESAKAKOIA, irailaren 4an, 78 urte.

Consuelo Santesteban Ibarra, ZUBIETAKOIA, irailaren 9an, 87 urte.

Santiago Aitzugarai Telletxea, LESAKAKOIA, irailaren 8an, 73 urte.

Isabel Elizegi Rivas, BERAKOIA, irailaren 4an, 78 urte.

Graciosa Iriarte Azpiroz, ITURENGOIA, abuztuaren 3an, 89 urte.

Felipa Elizalde Jaunarena, ITURENGOIA, irailaren 14an, 80 urte.

Jerónima Ariztizabal Saldias, ARRAIOZKOA, irailaren 15ean, 88 urte.

Benita Uriz Iriarte, ELIZONDON, irailaren 18an, 74 urte.

Pedro Antonio Urrutia Irigoien, irailaren 23an, Amalurkoa, 67 urte.

Beatriz Román Sánchez, BERAN, irailaren 23an, 96 urte.

Pierre Sorrondo, SARAKOIA, buruilaren 23an, 70 urte.

SOULE
Hileta artea
© 948 453444-629 659583
ARIZKUN

OUTROMASAJE
Piti Villabona Saralegui
Elbarren 36-3.B • LEITZA • ☎ 948 510694

KOXKILA OSTATUA
Zarandía, 4 - LESAKA

BAZTAN FUNERARIA
TANATORIO ZERBITZUA
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK
Pedro Axular, 6 • ELIZONDO
☎ 948 580373 • 608 776176



Joxe LERTXUNDI AMONDARAIN

✝

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guzici, **ESKER MILE.**

FAMILIA.

IGERIKETA

Eskualdeko selekzioak brontzezko domina lortu du Kirol Jokoetan

Urre eta zilarrezko launa domina eta brontzezko hiru ekarri dute

Aitor AROTZENA

Baztan-Bidasoa-Leitzaldeko igeriketa selekzioak emaitza bikaina eskuratu zuen irailaren 1ean, Iruñeko Gelbentzu igerilekuan egindako Nafarroako Kirol Jokoen finalean. Hamar eskualdeko ordezkariak izan ziren Iruñean eta eskualdeko igerilariak hirugarren postua erdietsi zuten, honenbertzez brontzezko domina golkoratuz. Leitzako Eunate Lopez, Elizondoko Xabi Ripa eta Berako Aritz Perez entrenatzaileen erranetara, hemezortzi igerilari hartu zuten parte selekzioarekin: Berako Gurutze Andueza, Asier Andueza, Mikel Morcillo, Intz Iriarte eta Unai Rodriguez; Lesakako Leire Pastor, Isabel Etxebeste eta Aritz Telletxea; Leitzako Zuriñe Goikoetxea, Judith Sainzar, Nahia Barriola, Johana Barriola, Alaitz Morato eta Julen Sagastibeltza eta Elizondoko Angela Nagore, Ines Laborra eta Alejandro Arondo.

HAMEKA DOMINA

Errelebo taldea mikel Morcillo, Unai Rodriguez, Isabel Etxebeste eta Gurutze Anduezak osatu zuten. Bi domina lortu zituzten: 4x50 crol eran urrea eta 4x50 estilo eran zilarra.

Bakarka ere domina parrasta ekarri zuten eskualdeko igerilariak.



Baztan-Bidasoa-Leitzaldeko selekzioa osatu zuten igerilariak gustora, brontzezko domina lortu eta gero.

Aritz Telletxeak brontzea lortu zuen 25 metro tximeleta eran. Gurutze Anduezak bi domina lortu zituen, zilarrezkoa 50 metro tximeleta eran eta brontzezkoa 50 metro crol eran. Intz Iriartek ere bi domina eskuratu zituen, zilarrezkoak biak, 25 metro bizkarka eta 25 metro crol eran. Mikel Morcillok urrea erdietsi zuen 50 metro crol eran. Unai Rodriguezek ere sari nagusia lortu zuen 100 metro estiloetan. Isabel Etxebestek, azkenik, urrea lortu zuen 50 metro crol eran eta brontzea 50 metro braza eran.

WATER-POLO

Gure-Txokoa taldeak bosgarren postuan akautu zuen txapelketa

Igeriketa txapelketa jokatu eta astebetera, irailaren 8an, jokatu zen Gelbentzu Nafarroako Kirol Jokoen water-polo txapelketa. Iaz azpitxapelkun izan ondoren, aurten bosgarren postua bertzerik ez du lortu Berako Gure Txokoa water-polo taldeak. Dena den, Aritz Perez entrenatzaileak adierazi digunez, zorte txarra izan zuten: «Lehenengo partiduan, baliorik

gabe utzi zuen epaileak azkeneko segunduan berdintzeko balioko zuen gola». Itxusia taldearen kontrako partida hori 1-0 galdu ta, bigarren partida ere galdu egin zuten C.N. Pamplonaren kontra, 4-0. Finalerdietatik kanpo, bosgarren postua jokoan zegoela 16-0 irabazi zioten Eskuna taldeari eta taldeko jokalariek guziet bederen gol bat sartzea lortu zuten.

BIZI-FLASH

Nafarroako Mendi-bizikleta jautsiera txapelketa

Irailaren 15ean jokatu zen Beran Nafarroako Mendi Bizikleta jautsiera txapelketa. Xabi Telletxea igantziarra, iaz bezala, txapelkun suertatu zen senior mailan. Proban bigarren izan zen, Portugaleteko Joseba Leonen gibeletik. Dena den, lehen nafarra izan zen eta honenbertzez txapela jantzi zuen. Hirugarren postua Eneko Ado beratarrentzat izan zen. Nesketan, Miriam Blas beratarra suertatu zen txapelkun eta gazte mailan Hegoi Ado beratarra gailendu zen. Biharamonean, Xabi Telletxea bera Asturiasko Openeko proba batean nagusitu zen eta lehen-dabiziko postuan dago sailkapen orokorrean. Euskadiko Openean, berriz, bigarren da Joseba Leonen gibeletik.

Garikoitz Atxa

Urtxintxa-Aptiva taldeko txirindulari almandotarra hamargarren izan zen Espainiako junior mailako txapelketa. Leonen jokatu zen txapelketa irailaren 16an eta Gaztela-Leongo Ivan Melero izan zen garaile. Atxa 41 segundura allegatu zen eta lehen-dabiziko nafarra izan zen.

Jon Bru

Telco,m-Ordoki taldeko txirindulari beratarra hirugarren izan zen Altsasuko 72. Txirindulari Sarian. Afizionatu mailan egiten duen azken lasterketetako bat izan zen hori Brurentzat, Portugaleko La Pecol talde profesionalarekin fitxa egiten baitu.

AGENDA

egunez egun

ERAKUSKETAK

BERA

Irailaren 5etik 28ra «Kantuketan» izeneko erakusketa ibiltaria Kultur Etxean. Arratsaldeko 4.30etatik 8etara. Euskal Herriko kantuen historia entzungai jarri du Euskal Kultur Erakundeak.

KANTALDIAK

BERA

Urriaren 5ean Aerospace Soundwise musikaria Kultur Etxean, arratseko 10etatik aitzinera. Sarrera 500 pezeta.

BERA

Urriaren 9an Dutorchillar Uzbekistango emakume taldearen kantaldia Kultur Etxean, Kantuketan erakusketaren barnean. Berako Petti eta Joseba Irazoki musikarien laguntza izanen dute.

SOLASALDIAK

LESARA

Urriaren 11n nerabezaroari buruzko solasaldia eskalniko du M^a Jesus Uranga sikologo, sikomotrizista eta familia terapeutak, arratsaldeko 5.30etatik aitzin irain esolako balo anitzeko gelan. Gurasoel zuzendua.

MENDI IBILALDIAK

ARXAIN-BERA-SARA

Urriaren 14an presoen aldeko marxa Larunerat abiatuko da goizeko 9etan hiru herrietatik.

ZUGARRAMURDI

Urriaren 14an Lesakara mendi ibilaldia egingen da.

TELEBISTAKO TXOKOA

ttipi-ttapa telebista

arratseko 9etan **egunero**
errepikapenak 11etan, 13etan, 17etan

BERRIZ ERE ETXEKO PANTAILETARA

Igantziako San Migel bestekin batera hasi da programazioa

Urteroko atsedenaldiaren ondotik joan den irailaren 24an hasi zen berriz ere martxan ttipi-ttapa telebista. Abuztuan Amabirjinen bestak bukatu eta gero egin zuen geldialdia bortzirriak eta mallerrekako telebistak eta orain, hilabetea pasa eta gero berriz ere ekin dio programazioari. Lehenbiziko aste hauetan telebista jarraitu dutenek ederki jakinen duten bezala Igantziako bestekin hartu diogu martxa egunerokoari baina laster izanen da gehiago.

Udazkenarekin batera eskualdeko kultur dinamika ederki bizitzen da eta noski ttipi-ttapa telebistan horrek bere islada izanen du. Urriko lehenbiziko asteburuan

adibidez antzerkia izanen da nagusi hainbat herritan, hoiere artean Beran, Ttiantaka taldearen eskutik edo Lesakan Kukubiltxoren eskutik. Eta horrela udazken guzian. Tartean berriz ere kirola izanen dugu mintzagai Aitor Arotzenaren eskutik, baita gure herrietako berriemaielen konturik ere. Bertizko partzuergoaren laguntzarekin bertze urte batez eskeinitiko dizkizuegun laburmetraiak aiantzi gabe.

Halaere momentuz orain arteko programazioa mantenduko du ttipi-ttapa telebistak baina laister aldaketa batzuk jasanen ditu.

Hori ordea, beranduxeago izanen da.

DISKAK

LA FUGA



«A las doce»

La Fuga

EDG MUSIC

Edu (bateria), Fito (gitarra eta koroak), Nando (gitarra) eta Rulok (baxua eta ahotsa) La Fuga taldea osatzen dute. 1998. urtean sortuzen taldea, urte hartan «Mira» diska grabatu zuten. Laster «A las doce» diska plazaratuko dute, taldeak egin duen hirugarrena. Grabaketa Nafarroan egin da, Sonido XXI estudioetan, Galar-Espartzan. Aurrerapen gisa bi abesti aurkeztu dituzte, «Conversación, habitación» eta «Paquí p'allá». Entzuleak eruntatik irtetea nahi du taldeak, eta horretarako benetazko rock & roll-a jotzea dute helburu. «A las doce» diska berriaren produkzioa Javier San Martinek egin du. EDG-music zigiluak merkaturatu zegoen hutsunea bete nahi izan du diska honekin. Burutan edukituzko letrak, abesteko musika eta ez ahazteko kontzertuak.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(Irailaren 14tik 21erako prezioak)



Zerrikumea
(19 kilo): 3.500 pta.

Zerri gizena
(95-100): 201 pta/k.

Zerramak:
122/127 pta./kiloa, bizirik.



Aretze gizenak:
Idixkoak: Pta/kg. Kanal

Extra 530

1.koa 510

2.koa 490

Urruxak: Pta/kg. Kanal

Extra 540

1.koa 520

2.koa 500

Oharra: Prezioak 200-230 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun inguruak):

Nabarrak: urruxak

36.000 eta idixkoak

29.000 Pta.

Mestizoak: urruxak
41.000 eta idixkoak
39.000 Pta.

Zaldikoak: Pta/k

Sortuberriak: 555/565

Zaldi-behorrak: 375/385

Bildotsak: Pta/k

6-8 kilokoak: 1.325-1.375

8-10 kilokoak: 1.200-1.250

AGENDA egunez egun

BESTAK

ANIZ

Urriaren 6tik 9a arte Arrosarioko Amabirjinaren bestak. Xehetasunak 19. orrian.

CARTZAIN

Urriaren 11tik 14ra Pilarika bestak. Xehetasunak 21. orrian.

ANTZERKIA

BERA

Urriaren 6an Ttamtaka taldearen «Hor dago kokka» antzeziana Kultur Etxean, arratseko Betan. Antolatzaile: Bortzinetako IKA Euskaltegia. Bertzalde, urriaren 3an hasita, urte osoko helduentzako antzerki ikastaroa izanen da leku berean, Ramon Albisturen eskutik.

LESARA

Urriaren 6an Kukubiltxo antzerki taldearen «Txirikiz» antzeziana ikusgai udal pilotalekuan, Mozorro Berri kanpainaren bamean.

AZKAIN

Urriaren 5ean Ambrouille antzeziana, baimena guziak lortuz gero eta bamean egiteko posibilitatea baldin bazen.

GUARDIAKO BOTIKAK

Urriaren 6tik 9a

Etxalar, Sunbilla, Elizondo (Leizaun) eta Goizueta.

Urriaren 6tik 14ra

Arantza, Ituren, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

Urriaren 6tik 21era

Igantzi, Narbarte, Inurita eta Goizueta.

JAKIN BEHARREKOAK



Euroarekiko galdemoduak

-Euroaren etorrerarekin zer gertatuko da prezio psikologikoekin?

Gaur egun saltoki aunitzetan psikologikoak deritzen prezioak ikus daitezke, hauek 999, 1999 eta antzekoak dira. Psikologikoki balioa baxuagoa dela uste dugulako. 2002. urteik aitzin antzekoa gertatuko da. 1995 pezeta, 12,00 euro dira. Prezioa erakargaria izateko saltzaileak 11,99 edo 11,95 jarriko du.

-Kreditua eskatu nahi badute euroetan edo pezetetan eginen dut?

2001eko abenduaren 31 bitarte nahi dugun moneta hauta dezakegu, baina 2002. urteko urtarrilatik aitzin pe-

Euroan sartzeak ez du soldatetan inongo aldaketarik ekarriko, kontratuaren epea akusatuta ez bada behintzat.

zetak zuzenean euroak bihurtuko dira.

-Zer nolako eragina izanen du euroak bertze batentzat lan egiten dutenendako?

Soldata euroetan nahiz pezetetan



agertuko da abenduaren 31 bitarte. Balore bera izanen du bi monetetan ematen denean. Printzipioz soldata pezetetan jasoko da, enpresarekin bertze akordioetara iristen ez bada langilea.

-Lan kontratuak euroarekin aldatuko dira nolabait?

Euroan sartzeak ez du inongo aldaketarik ekarriko lan kontratuetan. Gauza bakarra, soldata euroetan jasoko dela izanen da. Honek ez du inor behar harko kontratu berria sinatu edo duena aldatzera. Kontratuak berdin jarraitu beharko luke, noski, bukatzen den epera iritsi ez bada. Era berean soldataren kopuruak ez du aldaketarik izanen.

LIBURUAK



ELA a través de dos guerras (1936-1946)

Maria Luisa Garde

Pamiela

Euzko Langileen Alkartasuna, bere garaian «Solidaridad» izenarekin ezagutua izan zen, ELA-STV sindikatu abertzalea nabarmenki sendotzen ari zen, 1936ko gerra iritsi eta zituen itxaropen guztiak etenik gelditu zitzaizkionean. Zenbat partaide ez ote zitzaion hil hartan, eta zenbat ELA kidek ez ote zuen gartzela edo erbesteak ezagutu. Dena den, Iparraldetik gerra ondoko egoera hari aurre egin eta sindikatu bezala zuen eginkizuna betetzen saiatu zen

erakundea. Baina orduan Bigarren Mundu Gerra lehertu zen, eta hura bukatu artean bere lehentasunak aldatu behar izan zen ELA. Bilakaera honetaz guztiaz dihardu M^l Luisa Garde historialari nafarrak eginiko saiakera sakon honek, Pamiela argitaletxearen bidez saio eta testigantza sailean, plazaratu den «ELA a través de dos guerras (1936-1946)» liburuak. 470 orrialde ditu eta 3700 pezetaren truke erosi daiteke liburutendetan.

00-34 948 63 11 88

Zure koneta erantzun jartzeko, 1.200 jenetan sartarazi behar da. Ttapi-ttapa zerbitzua erabiltzeko da zure koneta, gero argitu behar duzu. 1.200 jenetan sartarazi behar da. Ttapi-ttapa zerbitzua erabiltzeko da zure koneta, gero argitu behar duzu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sai koneta partikular, profesional eta merkatuen informazio eta zerbitzuen berr ematen da. Ttapi-ttapa ez du bere gain hartzen argintzariek diren eragiketen ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

BERA. Pisua salgai Legia, 53 - 3. ☎ 696 753 366.

BERA. 79 m²ko pisu moblez-tatua salgai. ☎ 948 630 943.

IGANTZI. Pisua, garagea eta soloa salgai. ☎ 948 637 845.

BULDAIN

Leitza pisuak salgai,
Prezio onen dende.

Deitu eta galdetu.

☎ 948 475 415
☎ 948 530 534 telefono

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

ADOS

SUNBILLA:
Azken 3 etxeak

 Etxebizitza
elkar atxikiak
106 m² + 50 m² garaje
+ lur zatia

Obrak hasiak dira

Argibideak:

☎ 948 451 841
607 978 656

Parrokia 9,
DONEZTEBE

ELIZONDO. Aldude karrikan pisua salgai. Eguzkitsua eta bizitzen jartzeko prest. ☎ 948 452 125 (eguerditan edo gauetz)

BERA. Legia karrikan pisu berria salgai. ☎ 948 631 081 (Irunabarrean delitu)

IRUÑA. Unibertsitate Publikoaren ondoan pisua salgai. 105 m². Prezioa: 34.000.000 ☎ 629 483 323

LESAKA. Pisua salgai Bittirialakalen 32. zenbakian 1go pisuan. Mobleztatua. ☎ 619 913 375.

LESAKA. Pisua salgai. Albistur karrika, 61-2. ☎ 943 801057 edo 943 800307.

ELIZONDO. 60 m²ko pisua eta 36 m²ko bajera salgai. Santiago karrika 90-1. ☎ 948 581 052

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

BERA. Pisua hartuko nuke errentan, hutsik, moblerik gabe dagoena. ☎ 652 757 774

ETXEBIZITZAK

105 Etxe konpartituak

BERA. Bikote batek logela bat errentan hartu nahiko luke. ☎ 605 314 367

DONOSTIA. Antigua pertsona bat behar da pisua osatzeko. Banakako logelak. ☎ 948 637 228 • 620 771 656 (Maider)

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

DONEZTEBE. Aparanen 75 m²ko nabe pabillioa salgai, 55 m²ko bigarren plantarekin. ☎ 948 450 906

BERA. 20 m²ko bajera, pelukeria izandakoa salgai. Age-

ma auzoan. ☎ 948 599 158.

LESAKA. Bideo kluba salgai. ☎ 948 637 136 • 616 451 975

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

LEGASA. 450 m²ko nabe alokatzen da. ☎ 629 348 491.

LESAKA. 95 m²ko bajera errentan emateko Bittirian. Argindarra eta ura sartuak eta tarima emana, komuna ere badu. ☎ 948 637 772.

BERA. 500 m² inguruko pabillioa industrialia errentan ematen da. ☎ 667 538 041.

GARAJEAK/LOKALAK

111 Bertzelakoak

BERA. Arraindegia traspasatzen da. Prezio arras ona. Frigorifikoa, hozkailua eta abar prezioaren bane. ☎ 948 631 124

ELIZONDO. Ostalua traspasatzen da. Errenta baxua. ☎ 948 585 016

LURRAK/ORUBEAK

112 Saldu

ALKAIAGA. 2.400 m²ko lur eremua salgai. ☎ 667 538 041.

ZERBITZUAK

208 Hargin/igeltseroak



Etxe eta baserrien zaharberritze obrak
Pareten zartadurak,
barneko lanak...

Puzate Polgonoa, A-6-7-8 eta 9
21195 AIZOAIN (Nafarroa)
Tfnak: 658 960605

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak

Animali-granjak edo bordak eraikitzeke eta berritzeke



manelsa

eletrizitate industrialia

Instalazio eta muntaia
elektrikoak
Mantenimendua
Automatismoak
Iluminazioa

Amairu 2, behea
Sakelekoa: 686 466 865
31700 ELIZONDO

Artekale 22, behea
Tel. eta faxa: 948 301 025
Sakelekoa: 686 466 866
31195 BERRIOZAR (Nafarroa)

AURREZKI BERMATUA

Hobe bi, bat baino

%5^{eko}
ERRENTAGARRITASUN FINKOA



IBEX-35eko BATEZ BESTEKO BIRBALORAZIOAREN

%30^a

INBERTSIO BERMATUA	ERRENTAGARRITASUNA
200 leku URRIAREN 15ean. PARTICIPAZIOAK DUEN LINDAZIO BALOAREN	%5^{eko} ERRENTAGARRITASUNA ERRENTAGARRITASUNA EPIAREN BUKAERAN (EZ URTERE NOMINALA) GENI ISKIOSEKO BATEZ BESTEKO BIRBALORAZIOAREN
100%	%30^a
BERME EPEA	HARPIDETZA EPEA
30 HILABETE.	200 leku URRIAREN 15^a BITARTE. ^{**}

* Kalkulazioa egiten da 2007/11/15ean (URRIAREN 15ean), Nazioarteko Bideratzearen (IBEX) 35eko Batez Besteko Birbalorazioaren bidez bideratzearen arabera. Azken Kalkulazioa 2007/11/15ean.
 ** Ezer jasotzea bakoitzeko.
 Berez Garrantzitsua F.I.A.E. (GARRANTZITSUA) S.A. enpresakoa da. Funtzioak: F.I.A.E. S.L., L.A.E. enpresakoen inbentarioa. L.A.E. en. Nafarroako Rural Kutxa de Crédito y Ahorro.
 Garrantzitsua enpresa da bideratzearen arabera. Nafarroako Rural Kutxa enpresaren bidez hazi berriko informazioa eredu. Prozedura hau 2007/11/15ean bitarteko bideratzearen arabera, ezin da bideratzearen bidez garrantzitsua inbentarioa.

www.zajerural.com/hesura

Garrantzitsua zu zara



proiektuak, eta Jarduera Saikutzua lortzeko proiektuak egiten dira (Licencia de Actividades Clasificadas) = 699 354 479

Alicia T. Erlanz
 BEHAR DITUZUEN LAN TXIKI HOBENTZAT
OFIZIALE GUZTIAK
SERVI - LAN...
 Elizagibeta, 5 - DONEZTEBE
 Tel. 94836193 - Fax. 94830790

AINHOA ARBURUA
Psikologo Klinikoa
 Kolegiatu zenbakia 781
 Antzientzia, depresioa, anorexia, bulimia, zikloa arazoak etab.
 948 630 258

TAI-CHI LESAKAN
 Zare bizitasuna garatzeko arketak, astean 2 egun.
 948 627 544

LANA 301 Eskariak
 Elektrizista eskeintzen da lan truketarako. = 948 638 153
2 neska eskeintzen dira Bera edo inguruetan lan egiteko. = 627 027 462
Neska bat eskeintzen da arratsaldetan lan egiteko Bera edo inguruetan. = 627 027 462

LANA 302 Eskaintzak
DONOSTIA. Gros auzoan neska internabehar da etxeko lanak egin eta 2 hilabeteko haurra zaintzeko. Lan-aritua eta informea dituen. Soldata ona. = 629 487 079
DONOSTIA. Neska bat behar da etxeko lanak egin eta

bi haur zaintzeko. Laguntzailea izanen du. Hileko 120.000 pezeta (aseguroa eta bi paga baita). = 609 988 352 - 943 223 863 (gaueko 8etatik aitzin)
Ibardinen jabetze batean lan egiteko **bi neska** behar dira. Bat igande eta udarako,

eta bertzea asteburu eta udan lan egiteko. Ordutegia: 9.30etatik 15.30etara. = 948 631 339.

IRAKASKUNTZA 401 Eskaintzak
 Ehoziri ikastaroa (boilios) eginen da urrian. Ebeletan, tze-

ria emateko: = 948 581 131

MOTORRA 501 Salerosketak
 Errepideko motoa salgai. Suzuki GSX 600-F. 190.000 pezeta. = 699 555 549
Lada Niva 4X4 salgai Lesakan. Hagitz egoera one-

an. 73.000 km. = 948 637 213

MENDAUR MOTOR
 € 948 40333 - DONEZTEBE
 Bigarren eskuko kotxeak: C15D, Peugeot 605TD, Golf, Nissan Terrano 3 ate, Opel Frontera TDI, Peugeot 504 SIZURAK ETA VIDARAK, ALKERAN

Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.



INZE IÑARTE KAPENOTXI beratarak 10 urte beteiko ditu urtaren 15an. Zorionak aita, ama eta Zaritzako familiaren partetik. Hodei berezki.



JULEN LAYORRI GOIA beratarak 10 urte bete ditu irailaren 30ean. Zorionak aita, ama eta Eideren partetik.



SAIDA ORDOIKI AGESTA irundarrak 12 urte bete ditu irailaren 22an. Zorionak eta musu handi bat aita, ama eta Eideren partetik.



HARITZ BERAU MUTUBERRIA irailaren 21ean urtea bete zuen. Zorionak aita, ama, anai eta familia guztiaren partetik.



OIHANA RETEGI BENGOTXEA amaizarrak irailaren 25an 9 urte bete zituen. Zorionak eta musu handi bat familiaren partetik.



MARIA TELLETXEA urtaren 8an 2 urte beteiko ditu. Zorionak ama eta aitarien partetik.



IRANTZU ETA AITZIBER GOIENETXE BAYIZ irailaren 30ean eta urtaren 25ean, urtea eta 4 urte beteiko dituzte. Zorionak eta musu handi bat aita eta amaren partetik.



MARIA TELLETXEA urtaren 8an 2 urte beteiko ditu. Zorionak Maginbertakos familiaren partetik.



ITXASO BERROZEPE MITXELENA irailaren 3 urte bete zituen irailaren 25an. Ongi pasa zure eguna eta musu handi bat familiaren partetik.



NAIARA ALDABAZAL ZAMAREÑO beratarak 15 urte bete ditu irailaren 23an. Zorionak Irigo, Mikael, aita, ama eta amonaren partetik.



IRIGO ALDABAZAL ZAMAREÑO beratarak 12 urte beteiko ditu urtaren 11n. Zorionak Naiara, Mikael, aita, ama eta amonaren partetik.



Zorionak **AINHOA SEMPERE** eta **GORETTI ETXEGARAIN** udan 16 urte bete zituztelako. Beranda bada ere, oroituz gara. Klaseko lagunak.



PAKITA ARIZTEGI INIARTE irailaren 27an 65 urte bete zituen. Zorionak familiaren partetik.



AINTZANE OLASKOAGA APEZTEKEA irailaren 8an 2 urte bete zituen. Zorionak sorgina, atabak, amabak eta Hodeien partetik, musu bat.



ZORIONAK AMATXI TERESA ETA GARINOTZI Ma, mus, sekretuz!



IRATXE IZARDU EZEIZA elizondarrik 4 urte beteiko ditu urtaren 13an. Zorionak eta musu bat aita, ama eta amonaren partetik.



AMAIJA JORAJURIA irailaren 27an 18 urte bete zituen. Aizkaren 18 urte! Oren bai, nahi dutuna egn ahaliko duzu. Zorionak familiaren partetik.



SARA TELLETXEA IGOA beratarak 5 urte bete ditu irailaren 28an. Zorionak familiaren partetik.

Lada Niva kotxea salgai. Ehiztariendako aproposa. Merkea, kilometro guttirikin. NA-W = 609 445 769

Trail Africa-Twin motoa salgai. 750cc, egoera onean dago. = 948 631 061

Suzuki Katana scooter motoa salgai. 80cc. = 666 488 775 (arratsaldeko Batafik aitzin).

Nissan Patrol-a salgai. 6 zilindro, Turbo Diesel, 1989koa. Egoera onean dago. = 610 257 467 (arratsetan)

Suzuki Vitara 5 atekoa erosiko nuke. = 610 257 467 (arratsetan)

Chrysler Voyager 2.5TD furgoneta salgai. NA-AS, hagitz egoera onean. 2.200.000 pta. = 948 637 433

Scooter Rieju Crosser motoa salgai. 49 cc, 17 hilabete, 840km. Egoera hagitz onean. = 948 631 364

Fiat Fiorino furgoneta isotermodarekin salgai. 1,7 TD, berria (3 urte). 70.000 km, arras merkea. = 948 631 124

ANIMALIAK**601 Emateko**

Fox Terrier arrazako zakur emea emanen nuke. 5 urtekoa. = 652 757 774

Kattukumeak oparitzen dira. = 948 635 182

ANIMALIAK**602 Salerosketak**

Artzai zakurkume alemanak salgai. = 948 630 050

Ertzi ehizi eta basurde ehizko zakurkumeak salgai. = 659 110 076

Behi pinttoa, lehendabiziko umaldikoa, salgai. Araba egin berria. = 635 182

Hogel ardi salgai beraien deneroekin. = 948 450 533

DENETARIK**701 Galdu/Aurkituak**

Beran 3 giltza aro batean sartuak (bat more kolorekoa) eta peugeot markako kobxe baten giltza aurkitu dira. = 948 631 188

DENETARIK**702 Salerosketak**

Sukaldea salgai. Egoera onean. 6 su ditu, horietan

ko 2 plakarekin. Labea ere badu. Prezio negoziagarria. = 606 270 978 (Joxan)

Kaja registradora, euro-etara egokitua salgai. Prezio ona. = 948 580 939

Esnea hozteko tankea (320 litro) salgai. Alfa-Laval markakoa. = 948 631 047

Bero "AKUMULADORE-AK" prezio onean salgai. = 948 631 289 (gaueko Batafik aitzin)

Logela salgai, 2 metroko armarioarekin, 1,35eko ohatzea, bi mesilla eta komoda. Arras egoera onean. = 639 452 192

Hartzezko salako armario-librerria (2,10 metro zabal, telebista jartzeko xokoparekin) eta 180x90 cm.ko mahala (bi aidetara zabaltzen dena) salgai. 8 aulki opari. Hagitz egoera onean dago. = 948 452 374.



SARA TELLETXEA IGOA beratarak 5 urte bete ditu irailaren 28an. Zorionak familiaren partetik.



OLAIA OTXOTECO DOMINGUEZ irundarrak 4 urte beteiko ditu urtaren 10ean. Musuak eta aurkitu arte «Koko», aita eta amaren partetik.



JOEL ORONDO INZA irailaren 4 urte beteiko ditu urtaren 7an. Zorionak familia guztiaren partetik.



JULEN LARRETXEA donostiarak 3 urte beteiko ditu urtaren 15ean. Zorionak familia guztiaren partetik.

**ETXALARako UDALA****UDAL OSTATUA ETA JATETXEA ERRENTAN ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA**

Udal honek lehiaketa irekirako deia egiten du Udaltzeko beheko eta lehen solairuetan dauden ostatu eta jatetxeak errentan adjudikatzeko.

- Hilabeteko kanona, hasierako prezio gisa: 45.000 pezeta, gehi BEZA.
- Kontratazio epea: Lehiakideak eskaintza zehaztu behar du. Gehienez ere hamar urterako izanen da eta gutxienez bost urterako.
- Behin-behineko flantzia: 100.000 pezeta.
- Aurkeztu beharreko agiriak: Baldintza pleguetan adierazten direnak.
- Proposamenen aurkezteko epea: 27 egun naturalak, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, azken eguneko hamalauak arte. Epea larunbata edo jai egunean bukatzen bada, hurrengo lehen laneguneko hamalauak arte luzatuko da.
- Eskaintza ekonomikoak irekitzea: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta biharamunetik hasita bostzagarren lanegunean, arratsaldeko 7.00etan. Egun hori larunbata bada, hurrengo lehen lanegunera atzeratuko da.
- Baldintza plegua interesatuen eskura dago Udaltzeko idazkarian.
- Proposamen erredua: Nafarroako Aldizkari Ofizialean Ebalatzen, bi mila eta bateko irailaren hamalauan.

ALKATEA, Miguel M^o Irigoien Sanzberro

AMEZTIA Jatetxea

Amezitia karrika, 9
DONEZTEBE
948 450 028

Oporrak direla eta, Jatetxea
itxia egonen da urriaren 1etik
22a bitarte.
Barkatu eragozpenak.

Zeramika eta bainuen erakusketarik ikusgarriena



 **alkain**
zeramikak eta bainuak

IRUN eta HONDARRIBIA artean
(aeroporta ondoan) Mendela Poligonoa
Tfnoa. 943 64 52 54 / Faxa: 943 64 58 55



HEMANTXE GAUDE

3


ISK TEK -G U H N I EKIN

L UN T Urr k , L h n u

TZI L 12 rr n

L UN T 13 t h ru rr n u k

S E EKIN K NTSUMIZI T E L E



BORDATXO

ZUTARUNBAT
GAUEKOKO
MARTXA